

ABENDOKO LEHEN IGANDEA C

Has. -Abendoa. Eguberri aintzineko hilabetea.

Eguberriko besta prestatzeko hilabetea. Saltegien itzulia eginez ?

Girixtinoek, bestrik igurikatzen dugu : Jesus gure salabatzalearen etortz

Gure gogoak prestatu behar ditugu Jesusi, Jainkoaren semeari ongi etorria egiteko Eguberrikari.

- Jesus Jauna, bizia mundu hontan mugatzen balitz bezela ari gira, Urrikal

- Krixto, egiazko zoriona hitzeman daukuzula, ahanzten zaiku, Kristo Urrik

- Jesus Jauna, zuri otoitz egitea bazterten dugu, Urrikal Jauna

Ot. -Jainko Jauna, erakutz aguzu zure ganako bidea

eta emaguzu bide hori hartzeko konfiantza eta kuraia,

zurekin bizi gaitezen bai mundu honetan bai eta betiereko zorionean

Jesu Krixto gure Jaunaren bitartez.

1. Irak. Jainkoak zoriona hitzeman dio bere populuari. Ber hitza atxikiko du

2. Irak. Girixtinoak elgarrentzat daukagun amodiotik ezagutu behar gaituzte b gure saildutasunetik.

B.O. Jesus etorri da Eguberri. Berriz etorriko da gure bila eta eramanen betiereko zorionera.

F.O. Gure zeruko Aitaren nahia da, zoriona goza dezagun. Otoitz egin dezagu zorion horren bila dabilzan guzientzat.

1/ Zerbaiten beha eta gose dauden gizon eta emazteentzat. Biziz aldatu nah dutenentzat. Egin dezagun otoitz

2/ Gure mundu hontan zuzentasun eta bake behar gorrian diren populu eta herrientzat, EDO

3/ Jainkoaren eta Jainkoak ematen duen anaitasun eta amodioaren beha daude populu eta Elizentzat, e.d.o.

4/ Etsituak dienentzat, esperantza galdua dutenentzat, gehiago deus igurik dutenentzat, Egin dezagun otoitz.

* Jainko Jauna, gure ihes leku eta indarra, entzun otoi zure herriaren gal handirekin eskatzen duguna, ardiets dezagun . Krixto zure semearen bitartez.

E.g.o. Jauna zuk emanak dauzkizugu eskaintzen. Onarzkizu.

Zuri esker baitugu eukariztia hontan parte hartzen,

egizu lagunt gaitzan gaurko eta betiereko zorionaren bidean, JKGJB

Kom. Huna hemen Jainkoaren bildotsa, mundu hontako gaizkia eta bekatua kentzen dituen, zoriontsuak honen mahainera deituak

A.O. Meza hontan, denek bat egin dugu Jauna,

Jesusen gorputza hartuz kominione saildian

Batasun horrek iraun dezala asteen barna

eta egin gaitzala guretzat eta gure anaiantzat duzun amodioaren lekuko. JK

ABENDOKO BIGARREN IGANDEA C

Has. -Haurrideak, lehen bezala orain ere, Jainkoa, gau eta egun, Berrionar zabalduz dabila. Gogoan ditu gaurko gure tragediak eta miseriak. Hortarak oihukatzen dugu behin eta berriz. Jainkoa ona dela, Jainko Aitak maite gai gonbidatzen gaituela, egun batez, bere zorionean parte hartzera.

Jesus Jauna, Aitaren egiazko aurpegiaren agertzera etorria. Urrikal Jauna.

Kristo, zu barkamendua eta zuzenbidea ekarri daukuzuna. Kristo Urrikal .

Jesus Jauna, Zu, Joani Batistak iragarri salbatzailea. Urrikal Jauna.

Ot. -Konfidantza handi batek gora ereman dezala gure otoitza. (ixil une ba Jauna, Emaguzu zure maitasunean handi gaiten, zure grazian fidatuz. Presta gaitzazu zure semearen aurkitzera. Emaguzu ere bihotzez lot gaiten anaita bideen zabaltzen eta zure esperantza berriaren lekuko izaiten. Zu benedika zirena menderen mendetan.

1. irak. -Atzerrian, desterratuak direneri mintzo da profeta. Jerusalemgo gonbidatzen du, hiria ber-eraikitzea, kanporatu jendea itzul dadin.

2. irak. - Jainkoaren eguna gure aintzinean baldin bada, hari buruz bidean em behar gira.

Goazen beldur gabe, Jainkoak gurekin urrats egiten baitu.

B.O. -Jondoni Joani Batistak gure aintzinean idekitzen den bidea erakusten Bidea Kristori buruz doa. Jerusalem berriko Jesu Kristo.

F.o. -Badakigu Jainkoa jadanik datorrela. Jondoni Paulok bezala bozkarioz egin dezagun. Gure otoitzetan gomenda ditzagun behardunetan behardunenak.

1/ Eliza, Jerusalem berria, Jainkoaren batasunaren lekuko izaitera deitu

Munduan zehar, egoera zailak bizi dituzten Eliza berezientzat, Jaunak eman bere maitasunaren seinaleak eta bere bozkarioaren grazia. E.d.o.

2/ Gure herri eta jende aberats eta pobreentzat, amildegia batek bi zatita

Kargudunek ontasunak zuzenbidez partikatzeko aski odol izan dezaten. E.d.o

3/ Bakardadean bizi direnentzat eta adinak joak, Eguberrik diferentzia gut diotentzat. Sofrikarioz eta etsiturik dabilzantzat Jainko amultsu bat altxa dituen. E.d.o.

4/ Bataioaz geroz, hemen, fedearen jabe gaudela eta maitasunak bultzaturik dezagun bertute eta indar, gure sinestea agertzeko eta hedatzeko. E.d.o.

* Bai, Jauna, zure esperantzaz bete gaitzazu, zure etortzearen beha gaude ezazu

gure otoitza, eta lagun gaitzazu zuri buruz doan bidearen prestatzen, zuk gaituzulakotz menderen mendetan.

E.g.o.- Zure haurrak bezala etorri gaituzu gure ogi eta arnoarekin, segur maite gaituzula. Ez gaituzu gure mereximenduekin heldu, bainan zure grazia salbamenduaren eske. Hori bera galdatzen dautzugu Jesu Kristo gure jaunare bitartez.

Kom. - Mintzo bat oihuka ari da, basamortuan: presta bidea Jaunari, zuzen ...Orduan denek ikusiko dute Jainkoak eman salbamendua.

A.O. - Jainkoaren emaitzetan parte hartu dugu. Oraino, Jainkoari doaki esker-enezko otoitza...

ABENDOKO HIRUGARREN IGANDEA C

Has. - Egungo liturgiak behin eta berriz lema hau errepikatzen du: Bozkar zaitetze, hurbil da Jauna! Bozkarioa ez da atseginezko lasaitasuna. Ez da axolagabekeria. Bozkariatzen gira segur girelaketz Jainkoa gurekin dugula, maite gaituela eta bere erresuma heldu dela.

Bozkarioa da ere anaitasunezko harremanen ondorioa, barkamenaren ondorioa. Kristok Izpirtu Sainduan eta suan bataiatu gaitu. Egin dezagun bizia eman bataioaren orroimena. (Litania)

- Biziaeren iturria, zato gutan berpiztera! (errepika)
- Bakearen printzea, zato gure libratzera! ()
- Zuzentasun hazia, zato gure gidatzera!
- Zeruko semea, zato, zutik eman gaitzazu!
- Munduko argia, zato gure argitzera !
- Jainko semea, hats-berri gaitzazu!

Ot. -Bil gaiten, une batez, Jainkoaren begien argitan. (ixilik)

Badakizu zorionaren gutziak nola bultzatzen gaituen, denentzat nahi dugun zorionak!

Zure populua zure semearen sortzea prestatzen ari delarik, bidera ezazu gu bozkarioa, salbamenduaren misterio handiari buruz, bihotz berri batekin os dezagun, JKgJb.

1. irak. - Eguberri hurbiltzen ari zaigula, profetak ozenki adierazten du me gaiten beldur izan, pitz dezagun gure fedea, bozkaria gaiten.
2. irak. - Paulo apostoluak konfiantza eta bozkariozko hitzak derabilzki. Ja hurbil delako.

B.O. - Nola presta Jainkoaren bidea. Eguneroko gauza xumeak ongi eginez : bozkarioa, bakea, maitasuna eta zuzenbidea zainduz eta obratuz...

F.o. -Jondoni Paulok orroitarazi dauku otoitzaren beharra. Jainkoari hela dezaizkiogun gure otoitzak, haren bihotz onean fidatzen baigira.

1/ Zure Eliza egin duzu bakearen mezulari. Gizon guzien zorionarentzat eg dituen urratsak sustenga ditzazun.Otoizten zaitugu.(O.z.)

2/ Gure munduaren berri badakizu. Badakizu zer dugun beharrezkoena.

Justiziak gida ditzan gure buruzagiak. O.z.

3/ Gure deiak entzuten dituzu, Jauna, bereziki sofritzen dutenen deiadarra Sustatu itzazu girixtinoak, haien ondoan, zure Esperantzaren ekarle izan dit

4/ Egun errepikatzen daukuzu zer behar dugun egin zure etorrera prestatzek Hunki itzazu gure bihotzak, Euskariztia hunek gure indarrak berri ditzan.

* Jainko, gure Aita, entzuten gaituzulako jadanik salbatuak gira. Eskerra daukitzugu eta otoizten zaitugu zure bihotz ona erakuts dezozuten zu bila zaituzten

Guzieri. JKgJb.

E.g.o. - Jauna, bihotz onez dauzkitzugu eskuetan ezartzen ogia eta arnoa, lu eta gizonaren lanaren fruituak. Eukariztia zure Elizaren baitan eskainia i gure salbamenaren miraria beti obratzen baituzu. JKgJb.

ABENDOKO LAUGARREN IGANDEA C

Has. -Eguberri hurbilago dugularik, Jesusen Ebanjelioak presentatzen dauku Elixabeti egin dion bisita. Bi emazte. Bi sinesle, maitasunez eta bozkario Mariaren bisitak itxuratzen du Jainkoak bere populuari egiten diona. Egube dugu. Jainkoa heldu zauku bisitaz, haren etxean bilduak girenaz geroz. Bis gutarik bakotxarentzat egin nahi du ere.

Zato, berantetsiak gaude. Zato, gure libratzera. Jesus Jauna, zato!

- Jauna, mundu huntako hersturetarik deiadar egiten dautzugu. U.J.

- Kristo, gure ilunbe eta angustietan bilatzen zaitugu. K.U.

- Jauna, azkenean, ikusiko dugu egun berri baten argi azkorria. U.J.

Ot. -Jauna bere graziaren emaiteko beti prest dugu, idek diezogun gure bih (ixil)

Mariaren bihotzean isuri duzun bezala, Jaungoiko gure Aita, isur-azu zure gure bihotzetan. Aingeruaren mezuari esker eman daukuzu zure Seme maiteare haragitzearen berri. Zure pasioaren eta heriotzaren bidez gida gaitzazu berpiztearen loriara, menderen mendetan.

1. Irak. - Mikeas profetak iragartzen du Betlemen gertatuko den ekitaldi han

2. Irak. - Lehenago, salbamenduko, sakrifizioak ziren Jainkoari eskainiak.

Jainkoak bere burua du behin betiko eskaintzen.

B.O. - Mariak, Jesusez haurdun delarik, Elixabet lehen sinesleari egiten di Elixabetek mundu guziaren izenean bozkarioa adierazten dio.

F.o. -Maria, Jesusen amak helaraz ditzala gure otoitzak haren semeari. Gi haurride guziak haren eskutan gaude.

1/ « Maria berehala bidean emaiten da... Izipiritua beti ari da lanean, gi bakotxa behin eta berriz deitzen duela. Elizaren ordezkari guzientzat. E.d.

2/ « Gorputz bat eman dautazu... » Eguberriko mezua arrunt

baliogabetua eta epeldua bilakatu da. Handi mandiek eta buruzagiek begiak behar den urratsak egin ditzaten baztertu eta behardunen faboretan. E.d.o.

3/ 3/ Bi behako kurutzatzen dira, Mariare

eta Elixabetena. Ditugun ideiak eta ontasunak ez ditugu denek berdin prezi

Alderdi askotan zatituak gira. Jakin dezagun herritar guzietan ongi etorria

etsaigo guzien gaintetik, bake bideak aurkitzeko. E.d.o. 4/ 4/

Haurrak jauzi egin zion sabelean Familientzat eta laster amatuko direne

Haien pozak Eguberriko zorionarekin batera, familietan maitasuna indar d

E.d.o.

* Zoriontsu gu, zure ezagutzea gatik, Jauna, gure eskariak zuri egiten aha dauzkizugulakotz. Onbera zira, harrera on egiozute gure otoitzeri eta gure bihotzeko asmo ixileneri, zu errege bizi zirena, menderen mendetan.

E.g.o. -Zure dohainen ospatzeko, aldarera ekarri daukitzugu lurraren fru

Zure bihotzberatasunean, onar-zkitzu, bihotzen hazkurri bilaka ditene, eta

bekatuetarik libra gaitzaten, zure semea etorriko delarik harekin bat izan

hura bizi baita zurekin eta Izipiritu Sainduarekin batera, orain eta betier

Kom. - Heldu naiz zure nahiaren egitera... Jesu Kristok Jainkoaren na

bere burua eskainiz behin betiko...

A.O. -Jaungoiko guziz ona, Eguberri eta Bazkoko Jainkoa, zuri gure aintza

EGUBERRI GAUA

Sar.- Bihotza bozkarioz beterik, bildu gira gau huntan,
Esperantzaz beterik, mundu berri bat, mundu ederrago bat sortzen ari dela
Gure gogoan eta otoitzean ekar ditzagun bozkario hori
eta esperantza hori galduak dituzten guziak.

Bihotz umil batekin goazen Betlemeko haurraren ganat,
haren ganik igurikatzen baitugu bakea, salbamendua; bekatorosak girela ait
Jesus Jauna, Betlemeko otalakoan sortu ziren haur xumea, zato gure salbatz
U. J.

Jesu Kristo, kontseilari miresgarria, zato gure azkartzerat, K. U.

Jesus Jauna, bakearen Errege, zato gure biltzerat, U. J.

Ot.- Jainkoa gutarik bat egin da : ongi-etorri egin diezogun gure otoitz
hutan...(Ixil)

Jainko guziz leiala, handia da gure bozkarioa .

Zerukoan eta lurrekoan parte hartzerat deitzen gaituzu.

Mariaren altzoan, ezagutzen dugu aspaldiko mendeetan hitzeman salbatzailea

Egizu, otoi, behar bezalako ongi etorria egin diezogun gure baitan,
eta jakin dezagun ere gizon guzien baitan ikusten haren begitartea.

Aintza zuri, Aita, Jesus zure haurraren bitartez, eta Izpiritu Sai
baitan, mend. mendetan.

Ira.1.Azkenean, desterrutik landa, populuak laudatzen du Jainko salbatzai

Ira. 2. Jesus gure historian gure bizietan sartzen da, gure salbatzeko.

B.O. Jesusen erroak urrun doaz bai iraganean eta bai etorkizunean.

F.O. Haurrideak, agertu da Jainkoaren grazia gizon guzien salbamendurako.

Fidantziaz

beterik, erran diezogun Jainko Jaunari, nolakoa nahi ginukeen Eguberri mun
guziarentzat.

1. Bakezko Eguberri jauts dadin, gerla, asaldatze eta hiltzeak diren esku

E.d.o.

2. Argizko Eguberri izan dadin, zuzentasunaren alde bermatzen direnen biho
eta berdin zuzentasunaren kontra ari direnetan... E.d.o.

3. Esperantzazko Eguberri izan dadin, eri, ezindu edo penetan diren

E.d.o. 4. Maitasunezko eta batasunezko Eguberri izan dadin Elizaren

buruzagientzat, eta gaur Jesu Kristo, Jainkoaren semea sortu dela sinesten
guzientzat...E.d.o.

*Jauna, zure Semea emanez, bakea eman diozute maite dituzun gizoneri.

Burura-zazu, otoi, zure bihotz onaren lana. JKgJb.

E.g.o. Jainko gure Aita, oraino mintzo ez den haur batean zure Hitza gizon
ezagutzeko grazia eman daukuzu. Egizu ezagut dezagun ere ogi eta arno hauk
hartuko ditugularik. Horiek eskaintzen daukitzugu, zuri, Jainko guziz lei
eta gizaldietan

Kom. - Aintza zero gorenetan Jainkoari, eta bakea lurrean hain maite ditu
jendeeri.

EGUBERRI EGUNA

Has . – Haurrideak, sar gaitezen Eguberriko bozkarioan. Haur bihotz batekin, beti eta beti miresteko Jainkoak egun egiten daukun emaitza. Ixiltasunean entzuteko Jainkoak egun emaiten daukun Hitza. Zorionezko egun hunek bakera gomitatzen gaitu, ezindueri eta baztertueri buruz urrats bat gehiago egitera. Salbamendua denena da.

- Jesus Jauna, Jainkoaren Hitza, gizon egina gure salbatzeko. U.J.

- Jesu Kristo, Bakearen Printzea, gure bekatuek kurutzera ereman zaituztena. K.U.

- Jesus Jauna, Seme lehen sortua, betiereko maitasunaren mahairat deitzen gaituzuna.

Ot. – Jaunak deitzen gaitu, bere seme sortu berriaren ondorat..

Jainko gure Aita, profeten boza baino ozenago, altxatzen da egun lo dagon

haur baten ixiltasuna, zure amodioak urratu baititu gure ilunbeak. Egizu,

haur sortu berri hortan ezagut dezagun, zure hitz bizia,

egizu haren bizian parte har dezagun hura errege bizi baita zure eta Izpiritu

Sainduaren batasunean, menderen mendetan.

1. Ir. – Berriona! Bozkariozko oihua! Salbamenduaren eguna etorri da!

2. Ir. – Haur ttipi huntan jadanik ikusten dugu Jesus piztua eta zerurat igana.

Berriona – Jondoni Joaniren lehen hitz miresgarriak: Jainkoaren Hitza gizon egina.

F.o. Jendeak jendea balio du. Jainkoaren salbamena ez du nehor kanpo uzten.

1. Jainkoaren Hitza hitz bizia da. Jesusen Berrionaren ardura dutenentzat: apezpiku, apez, serora, katexima egileentzat, Jaunaren Hitzak fedean leial eta sendo atxik ditzan Edo

2. Jainkoaren Hitza argia da. Eritetxeetan eta presondegietan lan egiten dutenentzat, etsipenaren gauean beha dauden eri, preso eta familientzat.

Izan ditezen elgarren argi eta sosegu. E.d.o.

3. Jainkoaren Hitza haragi egin da. Gogo oneko jende guzientzat, Jainkotik urrun daudenentzat, Eguberriko mezu xumea hel dakioten. E.d.o.

5. Jainkoaren Hitza Jesus bera da. Eguberriko ospakizun huntan bilduak girenentzat bihotzak Jainkoaren maitasunari idek ditzagun, gure aldeko laguneri

ongi etorri hobea egin diezotegun, bakearen erreinua heda dadin gure artean. E.d.o.

*Gurekin zaitugunaz geroz, Jainko gure Jauna eta zure maitasunak gure mundu hau argitzen duenaz geroz, egizu zure maitasun bera handi dadin gure bihotzetan, zure eta zure Semearen aintza kanta dezagun, Izp. Sainduaren batasunean.

E.g.o. – Jauna, zure aldarean, oparitu dauzkitzugu gustukoak dituzun emaitzak.

Eguberri egun huntan onar-zkitzu amultsuki eta egizu lurraren fruitu hauk

Jainkozko dohain bilaka ditezen, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

A.o. – Argia ziren Jainkoa, Zure Hitza gizon egin da, gizona zutaz bizi dadin.

Gure arterat etorri zira eta kumunione huntan hartu zaitugu. Eskerrak emaiten

dauzkitzugu. Zure semeak gure artean egin dezala bere egoitza, zure ondoan den

bezala, betidanik eta menderen mendetan.

FAMILIA SAINDUA C

Has. - Gaur, Familia Sainduarren ospakizuna !

Jesusek ditu erroak egiten familia batean, herri batean, populu batean.

Denek Jainkoaren munduko familia handi bera osatzen dugu. Familian, harmon bizi direnek, familia hautsiekkin eta familia gabekoeekin elkartasun azkar b dezatela...Denak batera entsaia gaiten mundu hau egunero hobea egitera.

- Jesus Jauna, Aitaren amultsutasuna munduari emana. Urrikal Jauna.

- Kristo, Aitaren etxeko bidea deneri ideki duzuna. Kristo Urrikal.

- Jesus Jauna, Barkamena gizon guzieren eskainia. Urrikal Jauna.

Ot. -Gizon guzieren Aitari buruz altxa ditzagun begiak... (Ixil)

Benedikatua izan zaite, Jainko gure Aita.

Familia Sainduari begira, adierazten daukuzu zure batasuna eta maitasuna.

Zure haur egin gaituzunaz geroz, emaguzu izpirituaren eta bihotzaren batas Jesu Kristo, zure seme eta gure anaiaren bidez, orain eta menderen mendeta

1. Irak. - (1 Sam 1, 20...28) - Jainkoak beti erabili ditu mezulariak bere g adierazteko.

Jainkoak bere ordezkariak nola hautatzen eta deitzen dituen, hau da mister

2. Irak. - (1 Jn 3, 1...24) - Haurrak burrasoen idurikoak dira.

Jainkoak ere bere idurikoak nahi gaitu.

Berriona- (Lk 2, 41-52) Tenploan Jesusek adierazten dauku Jainko aitareki egiten duela. Batasuna, Jainkoak gurekin ez du besterik bilatzen.

F.O. -Jainko Aita amultsuaren hurrek, Haren maitasunari dei egiten diogu, bihotz-bihotzetik; bereziki maitasun eskasa senditzen duten guzientzat.

1/ Elizarentzat, aita saindu, apezpiku eta inguruan dituzten laguntzaile guzientzat.

Gure mundu huntan, beti eta beti, geldi gabe,

Jainkoaren maitasunaren mezua heda dezaten. E.d.o.

2/ Mail guzietako buruzagientzat, hartu duten kargua denen,

eta bereziki ahulenen alderako zerbitzua dela, gogoan atxik dezaten. E.d.o

3/ Familia guzientzat, bereziki bihotzean zaurituentzat,

Jainkoaren mezua haientzat bake iturri izan dadin. E.d.o.

4/ Haurrentzat, har dezaten indar, maitasun eta fede, familietan bizi dut bakean. E.d.o.

* Jainko gure Aita, adieraz-aguzu zure haurrentzat duzun maitasuna. Izan z hersturetan zure haurren sustengu, eta maitasun bide. JKgJb.

E.g.o. - Jainko Aita, aldare gainera ekarri dauzkitzugu, gure etxeko mahaiak alaitzen dituzten ogi eta arnoak.

Opari hauekin egiten duzu zurekin baketzen gaituen sakrifizioa.

Apaltasunez, galdatzen dautzugu, Birjina Maria, Jainkoaren amari eta San Joseperen otoitzeri juntatuz, sendo ditzazun gure familiak, zure maitasuna idekiak egon dituen. mendet.

Kom. - Ikasazue zoin maite gaituen Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena em baitaiku, eta hala gira.

A.O. -Otoitz egin diezogun bere mahaian ongi-etorria egiten daukun Jainko Aitari. (ixilik)

Aita guziz amultsua, komunione hunek indarturik, emaiezu gure familieri, zure semearen familiaren idurikoak izaitea,

eta haiek bezala, bizi huntako hersturak garaiturik, goza dezagun betierek zoriona. JKgJb.

TRUFANIA C

Has. - Bozkaria zaitetze, Jainkoa ez da sekula gizonen deitzetik gelditu e geldituko.

Denetarik hautatzen du bere batasunaren partaide izaiteko.

Denak, ala pagano, ala Judu, ala saindu, ala bekatore, deitzen gaitu bere erresumara.

Mezu hau adierazten dauku egungo bestak, ekialedetik etorri Magoen kontakizunarekin.

Ainitz, Magoak bezala, izar baten ondotik gabiltza oraino...

- Jesus jauna, onar ezazu gure otoitzaren insentsua. Urrikal Jauna.

- Kristo, errezebi ezazu gure gizatasunaren mirra. Kristo Urrikal.

- Jesus Jauna, urrezko maitasunaren erregea. Urrikal Jauna.

Ot. -Jainkoak bere semearen ganat erakartzen gaitu

Izarrari esker, zure seme Jesu Kristo ezagutarazi duzu nazioeri.

Emaguzu, otoi, guk sinestearen bidez ezagutzen zaituguneri,

ikus dezagun zure aintzaren edertasuna.

Zure seme Jesu Kristoren bitartez, Izpiritu Sainduarekin Jaun eta errege mend. mendetan

Ira. 1. (Is 60, 1-6) - Jadanik, profeten denboran, Jaunaren mezua mundu guzi iragarria zen.

Ira. 2. (Ef 3, 2...6) - Handia da sinestearen misterioa... Sinestea, ez da m baten dohaina bainan deneri proposatua.

Berriona- (Mat. 2, 1-12) - Ebanjelioa Jainkoaren argiaz ari da, mundu gu zabaldua zaion argiaz. Hortarako Magoen istorioak hartzen du garrantzia ha F.o.Maitasunaren segurtamenarekin Jainkoari helarazten diogu gure otoitza gure ilunbeen erditik altxa dadin gidatuko gaituen izarra.

1/ Kenka txarrean diren Elizentzat, sinesdunak hertsatuak, girixtinoak i elizak debekatuak, sinestea sendo atxik dezaten, E.d.o.

2/ Argiaren bila dabilzan gizon emazte zintzo guzientzat, eta ebanjelioar ona zabaltzen duten guzientzat. E.d.o.

3/ Erientzat eta haien familientzat, geroak kezkatzen dituen gazte guzient zertako bizi diren ez dakitenentzat. E.d.o.

4/ Hemen bilduak girenentzat. Gure bizi moldeek eta hitzek ager dezatela g fedea, maitasuna eta esperantza. E.d.o.

Ezagutzen duzu, Jauna, zenbat jende dabilan argi eske.

Egizu zure izarrak argi ditzan eta zutan esperantza berri bat aurki dezate

E.g.o. - Ez dugu ez urrerik, ez insentsurik, ez mirrarik ekarri aldare gaine

bainan xoilik arno eta ogi hauk, zuk emaiten dauzkiguzun dohainen seinale

Zure maitasunean onar zkitzu eta itxuralda betiereko gure hazkurri bilaka

Otoizten zaitugu zure seme Jesu Kristor gure jaunaren bitartez.

Kom. - Izarra ikusi zutelarik bozkario handi batek hartu zituen.

A.O. - Otoitz egin diezogun gidatzen gaituen Jainkoari.... (ixil)

Jaungoiko Aita, handia da gure bozkarioa.

Zure semea aurkitu dugu eukariztian.

Guri ere egin daukuzu ongi-etorria.

JESUSEN BATAIOA C

Has. - Eguberriko garaia bururatzear dugunean...

Jesusen gaztaroaz nahi ginuke gehiako jakin. Bainan Elizak orraitarazi na Jesusen bataioa proposatuz, haren misioa giza guzieren salbamendua dela eta nahiz eguberri hasi, egun hasten da publikoki. Gure biziari Jesu Kristok dio zentzu, harekin bide berean bagoaz Aitaren erresumara...

- Jauna, giza seme-alaba guzieren salbatzera etorria. Urrikal jauna.

- Kristo, fededun guzieren zurkaitza; Kristo urrikal.

- Jauna, Jainkoaren osperearen aintza. Urrikal Jauna.

Ot. -Jainkoaren aintzinean bildurik, otoitz egin diezogun .

Jordan ibaian, bataiatua izan zenean, Izpiritu Saindua Jesusen gainean pa zure seme amultsua deitu duzu.

Bataiatueri egiguzu Izpiritu Sainduaren dohaina, zure nahia egin dezaten.

JKto gure Jaunaren bitartez, hura bizi baita zurekin eta Izpiritu Sainduaren mendetan.

1. Irak. - (Is 40, 1...11) - Profetak artzain on bat bezala presentzen du Jainkoa

2. Irak. - (Ti 2, 11...3,7) - Batistak emaiten zuen bekatuen barkatzeko bata Jesusek, bataioaren bidez bizi berri bat emaiten dauku, Izpiritu Sainduare eta haren hatsa.

Berriona -(Lk 1, 15...22) - Bataioaz geroz Jainkoaren haur gira. Hau, kanp begi batek ezin dezake ikus.

F.o.- Gure giza gorputza eta bizia hartu duena, egiazko Jainko semea da. Hortarako laguntza eskatzen diogu eta sofritzen duten guziak gomendatzen dizkiogu.

1/ Irabaziari hain atxikia eta galtzaileeri buruz hain bortitza den mundu Eliza izan dadin laguntzaile eta indar iturri. E.d.o.

2/ Izpiritu Sainduaren bertutez, ikas dezagun pasioak eta gaizkia urruntze gure herrian bakean eta zuzentasunean bizitzeko. E.d.o.

3/ Heldu den ilabeteetan bataiatuak izanen diren haur eta helduentzat, konfirmatuak izanen direnentzat, Izpiritu Sainduak bere indarrez bete di E.d.o.

4/ Elizan etsipena aurkitu dutenentzat.

Bihotza beti idekia atxik dezaten, bide berrien aurkitzeko. E.d.o.

* Jesu Kristo gure Jauna, gizonaren gorputza hartu duzuna, maitekiro begir ezaiozute

zure seme-alaba guzieren. Gure bizian, Jesusen bataioaren ospakizun hau iza dadin argi eta kontsolamendu. Zuri galdatzen dautzugu, errege bizi zirena, menderen mendetan.

E.g.o.Zu ganik ukan ditugun dohainak, Jauna, izan ditela zure maitasunaren seinale.

Zure Izpirituaren laguntzaz gu baitan indar har dezatela.

Eliza elkargo hunek eskerrak bihurtzen daukitzu zure seme Jesu Kristo gur Jaunaren bitartez.

Kom Hona Jainkoaren bildotsa.

Zoriontsuak Jainkoaren semea ogi eta arno hauetan dagola sinesten dutenak

A. O. -Gure otoitza doakio, bere semea eman daukun Aita guziz onari...(Ix

Zure maitasunak miresten gaitu. Zure semea ez da bakarrik gutarteko bat bi

URTEKO 2. IGANDEA – C

Has. Ezteiak izan ziren Galileako Kana herrian... Gonbidatuetan Jesus, M dizipuluak... Ezteiak izan ziren... Eta egun, haurrideak, Jainkoak gaitu g haren ezteietako mahairat... Kristau guzien batasunaren aste huntan, haren erantzuten diogu. Denek dukegu Eliza mota guziak batasunean bilduak ikuste gutizia...

- Zure hitzaren izenean bildu duzun populuaz, Urrikal Jauna.
- Izpiritu Sainduak saindutzen duen zure Elizaz, Urrikal Jauna.
- Zure odolaz salbatu populuaz, Urrikal Jauna.

Ot. Jainkoa Jainko da...Itzul gaiten hari buruz, maitasun eta guziz ahald Betiereko Jainko guziahalduna, zeruak eta lurak manatzen dituzu.

Erantzun ezozute zure populuaren otoitzeri. Gure mende huni emozu zure gra eta maitasunezko bakea, Jesusek lur huntara ekarri daukuna. Hau errege biz zurekin eta Izpiritu Sainduarekin, gizaldi eta gizaldi guzietan.

Ira.1. Beti danik, Jainkoa bere populuari eta fededuneri hurbil izan da. P adierazten dauku, maitale bikote baten hurbiltasunaren adibidea hartuz.

Ira.2. Gure biltzarretan jende mota asko bada, dohain desberdinak ere. Iz lanean dabil batak eta besteak batasunean biltzen.

B.O. Kanako ezteiek seinalatzen dute Aro berri bat. Batasun berri bat. Bi bat. Salbamen berri bat... Hoberena etortzekoa da. Jesus da.

F.o. Kana Herrian bezala, egun ere Jesusek ez du besterik bilatzen: haren haurrideen zoriona.

Galda diezogun maitasunaren seinaleak ager ditzan.

1. Ez dute arnorik Ezkongaiak gogoan, galda dezagun senar-emazte gazte izan diton

Jainkoaren maitasunaren lekuko. E.d.o.

2. Egizue erranen dautzuen guzia. Jainkoaren nahia ez da gurea. Jakin d otoitz egiten eta Jainkoak emana onartzen. E.d.o.

3. Zuk aldiz orain arte atxiki duzu arnorik hoberena... Eliza guzien batasunarentzat, zure haurrek aurki dezaten beren Elizaren baitan Izpiritu Sainduaren batasunaren dohaina. E.d.o.

4. Galileako Kana herrian zen... Herritarrentzat, Jainkoa hain hurbil dakitenentzat. Fededun bakotxa lehia dadin Jainkoaren maitasunaren lekuko izaiten.E.d.o.

* Kana herrian, Jainko gure Jauna, erakutsi duzu denentzat duzun maitasuna Erakutz-aguzu behin eta berriz zenbat maite gaituzun. Behar orduan, izan z gutarteko ahulenen ondoan. Galdatzen dautzugu, zu, errege bizi zirenari, g eta gizaldi guzietan.

E.g.o. Ogia eta arnoa eskaini dauzkitzugu...Kanan baino mirari handiagoak dituzu aldarean. Emaguzu izan dezagun Euskariztia huntan egiazki parte har grazia; Euskariztia ospatzen dugun aldi oroz zure salbamena baitugu bizitz JKgJb.

Kom. Giza seme-alabeen dohainak desberdinak dira bainan Izpiritu berak bultzatzen gaitu.

URTEKO 3. IGANDEA C

Has. Hitza hitz! Jesu Kristoren hitza eraginkorra da. Erraiten duena egi
Ez hets zuen bihotzak haren mintzoari.

Hain zuzen hemen bilduak gira haren hitza entzuteko.

Entzunen dugu Jainkoa leial dagola gure alderat.

Eta gu leial ote gira jaunaren Hitzari ?

- Jesus Jauna, zu baitzira Jainko biziaren Hitza, idek gure beharriak. U.

- Jesu Kristo, zu baitzira munduko Argia, idek gure begiak, K. U.

- Jesus Jauna, zuk igortzen baigaituzu Berri Onaren hedatzera, Idek gure a
J.

Ot. Jainko betierekoa eta guzizahalduna,

zure maitasunaren arabera gida-zkitzu gure biziak

Zure Semearen izenean fruituak nasaiki ekar ditzagun, JKgJb.

Ira.1. Israeldarrak miretsiak daude Jainkoaren hitza entzuten . Haren hitzetan
aurkitzen dute indar, esperantza eta kontsolamendu.

Ira. 2 . Gorputzeko atal guziek bat egiten dute pertsona bat osatzeko. Ber
Elizaren haurride guziek bat egiten dute Jesu Kristorekin.

B.O. Izpirituaren indarrak bultzaturik, Nazareteko sinagogan, Jesusek, la
handirekin, erraiten du nor den.

F.O. - Kristo gutartean da. Haren mezuaren ekarle gira. Berrionaren hedatz
Hitzaren hedatzera deituak gira.

1. Izpirituak igorri gaitu preso direneri erraiterat libratuak izanen dire

Beren baitan edo idaietan edo usaietan preso direnentzat, jainkoaren amodi
ditza...E.d.o.

2. Izpirituak igorri gaitu itsueri erraiterat argia ikusiko dutela.

Beren bizia norat doan ez dakitenentzat, Jesu Kristoren esperantzaren zor
dezaten...E.d.o.

3. Izpirituak igorri gaitu lehertueri libertatea ekartzera.

Zuzentasunaren, bakearen eta libertatearen alde lanean ari direnentzat ..

4. Izpirituak igorri gaitu Jaunak emaiten daukun salbamina lau haizetan
oihukatzen. Jainkoaren Hitza hedatzeko eginbidea dutenentzat,
Jaunaren Izpiritua haien bihotz-mihitan izan dadin...E.d.o.

* Jauna, Berri Onaren mezulari egin gaituzu.

Begira gaitzazu leial eta suhar, gure haurrideen onetan. JKgJb.

E.g.o. Bihotz onez onar ezazu, egiten dautzugun eskaintza,
saindu bilaka dadila gure salbamendurako. JKgJb.

KOM. Bataioan Izpiritu bera ukan dugu, denek, gorputz bat egiteko

A.O. Jaun guziahalduna , egizu,

zure ganik ukan ditugun bizi eta grazia berria

indar diten gu baitan, guk ere beti mirets zaitzagun, JKgJb.

URTEKO 4. IGANDEA C

Has . Izpiritu Sainduaren dohainak ainitzak dira.

Dohain guziekin eraikitzen da herria eta Eliza.

Bainan maitasuna da dohainetan handiena beste guziak manatzen dituen.

Maitasuna ez da bakarrik Jaunaren ezaugarririk lehena

bainan ere giza seme-alaba guziera eskainia zaiena...

Haur guzien Aitari galda diezogun barkamendu gure maitasun eskasez haurr alderat.

- Maitasuna jasankorra da eta laguntza emailea, elgarri barkatzea beti gi dugulako,UJ.

- Maitasuna ez da aho beroa ez urguluntzia, gure handi nahiez, Kristo Urr

- Maitasunak ez du herrarik atxikitzen, gure hasarre eta jazar-aldiez, Urr Jauna.

Ot. Jainkoaren hitza gu baitan bete dadin, egin dezagun otoitz ... (ixil)

Betiereko Jainko guziahalduna, gaur ere zure hitza igortzen daukuzu,

eta profetak jeik-arazten dauzkiguzu,

emaguzu zure maitasunezko mezularien entzuteko

eta zure Seme Jesu Kristori ongi-etorria egiteko grazia. Zurekin eta Izpir

Ira. 1 . Sortu aintzin, jadanik Jainkoak maitatu eta hautatu gaitu.

Profeta da Jainkoa berekin duena.

Ira. 2. Maitasunik ez badugu beste dohain guziak debaldetan ditugu.

B.O. Jesusen hitzak gogorrak dira. Herritarrek ez diote ongi-etorri ona

Jainkoak guk uste ez ditugunak hautatzen ditu. Haren bideak ez dira gureak

F.O.- Jainkoa maitasun da. Hari dohakio bere haurren otoitz amultsua...

1 - Elizak hitz gogor eta zuzenak erran behar ditu. Jesusen mezua zabaltze

eginbidea dutenentzat, haien entzuteko bihotz idekiak izan ditzagun... E.d

2 - Beren herria eta familiak utzirik, Jainkoaren maitasunaren suak dester

ereman dituenentzat, esku-zabalez Jainkoaren lekuko izan diten...E.d.o.

3 - Familientzat, haurrak maitasunaren batasunean eta bakean handi diten.

4 - Beldurrak eta etsipenak harrapatzen dituztenentzat, girixtino zintzoen

aurki dezaten esperantza...E.d.o.

*Jainko gure Jauna, Zure Izpirituaren hatsak akula dezala gutan eta gure

guzien baitan zure maitasunaren garra.JKgJb.

E.g.o. Zure zerbituko, Jauna, aldare gainean pausatzen ditugu gure eskain

Bihotzez ongi-etorri hoberena egiezu,

gure salbamenduaren sakramendu bilaka diten.JKgJb.

Kom. Zoriontsu, zuek, behartsuak, Jainkoa errege baituzue...Zoriontsu z

gose

zireztenak, Jainkoak asea emanen baitautzue...

A.O.Jainko gure Jauna, zure sakramenduak baketu eta indartu gaitu.

Komunione hunek eman diezagula gure haurrideen zamak ekartzeko indarra.

Hola lekuko izanen gira zu zirela maitasun guzien iturri, gizaldi eta giza

5. IGANDEA C

Has. - Hemen biltzen gaituena Jaungoiko Aita da.

Aita, beldur guziak kentzen dituen.

Nahiz epelak, lotsatiak eta uzkurak giren

Jainkoa bere indarrarekin hurran dugu.

Barku berean baigira beldur guziak kasatzen ditu.

Eta deitzen gaitu ur-bazter berrietara.

Goazen harekin eta Jainko guziz sainduari barkamendu eska diezogun.

- Jondoni Petri beldurak hartua zen, bainan Jaungoikoa hor zen eta hor da beti. U.J.

- Kristo, zure erresumako bidean, gure urratsen gidari zaitugu. K.U.

- Jauna, galduak zirenak, salbatu dituzu. U.J.

Ot. – Jainko guziz ahalduna, hemen bildua den zure populuari agerrazu zure egiazko maitasunezko aurpegia.

Gure usteek eta kuraia eskasek galtzen gaituztelarik zure graziak miregarriak egiten ditu.

Erakuts-aguzu zein fidela ziren, orain eta menderen mendetan.

1. Irak. – Jainkoak hunkitzen duenaren bihotza erretzen dio eta bizia uzkailtzen.

2. Irak. – Jainkoaren grazia indartsua da.

B.O. – Jainkoa bizi batean sartzen delarik, bizia itxuraldatzen du.

F.o. – Jondoni Petri eta Paulo bezala deituak, gure otoitza helaraz diezogun Jaungoikoari.

1/ Benedikatua izan zaite, bekatorosak deitzen baitituzu zure zerbitzurako.

Gogoan ditugu zuri jarraiki zaizkizunak, prestatzen ari direnak bai eta ere lotsak beretu dituenak. Haientzat, e.d.o.

2/ Benedikatua izan zaite, etsitueri, ezindueri eta erieri hurbilago izan nahi baitzira. Haientzat e.d.o.

3/ Benedikatua izan zaite, gure muga ttikien gainera urrunago deitzen gaituzulako, misionestentzat, Karitateak beti urrunago bultzatzen dituenentzat, E.d.o.

4/ Benedikatua izan zaite, hersturetan eta fedean sendo ihardokitzen dutenen gatik.

Gure otoitzetan ditugu ere duda-mudetan direnak. Haientzat e.d.o.

* Jainko hurbila eta bihozbera, gure mundu hau bekatutik libratu nahi duzu.

Erakuts-aguzu zure maitasuna. Bekatorosak girelakotz eta gauza guti,

emaguzu sendi dezagun Jesu Kristo beti gurekin dugula menderen mendetan.

E.g.o. – Jainko Aita, indarberritzen gaituzten ogi eta arnoak eskaini dizkizugu.

Egizu betiereko bizirako janari izan diton JKGJB.

Kom. – Jondoni Petri eta Paulo bezala, goazen eta bota ditzagun sareak.

A.o. - Jainko gure Aita, itsas ondoan bezala, gure lan eta nekeetarik hurbil dago zure semea,

Gure baitan emenda-zazu fedea, denak utzi-eta segituko dugu,

urrikalmenduaren eta partekatzearen bidean,

Jainko benedikatua, gizaldi eta gizaldi guzietan.

6. IGANDEA C

Has. - Ebanjelioa zorionaz ari zaigu, barne-barneko zorionaz, nehork ken ez diezaguen zorionaz; Jesusek emanaz, mundu hau argiz betetzen duenaz, eguneroko bizia eta aktualitatea ilun, gogor eta hotz heldu zaigularik.

Gure inguruan, ordea, zorionaren pindarrak nun-nahi ageri dira.

Ikasi behar gure barneko begiaren idekitzen.

- Jauna, maitasunez idekitzen dauzkizugu gure begiak. U.J.

- Kristo, zure argitan bataiatuek, sinesteak bultzaturik, oihu egiten dautzugu. K.U.

- Jauna, besta huntara deituak, zure bozkarioa ahurtaraka gureganatzen dugu. U.J.

Ot. - Jauna baitan fidatuz, bozkarioaren grazia eska diezogun (...)

Jauna, gure bihotzetan etxeratu zaituguna, emaguzu zure graziaren arabera bizi gaiten,

jaun eta jabe izan zakizkigun.

Zure maitasunaren distirak, gure ingurukoak argi ditzan. J.K.g.J.b.

1.Irak. – Zoriona, lur-onean, ur bazterrean landatu arbola da. Erroak barna ditu.

2.Irak. – Jesu Kristo ez bada piztu gure sinesteak funtsik ez du.

B.O. – Entzun ditzagun Jesusen lau dohatsutasunak eta lau gaitzezpenak.

F.o. – Benedikatua Jauna baitan fidatzen dena; Jauna bakarra baita zorion iturri. (...)

1/ Zoriontsuak zuek, orai gose zireztenak,

Goseteek errausten dituzten haurren deia entzun dezagun. E.d.o.

2/ Zoriontsuak zuek, orain nigarretan zireztenak,

Esperantza galdurik erratzen direnentzat,

Doluan diren familientzat,

Ixtripuz eta bortizkeriaz zaurituentzat ...E.d.o.

3/ Zoriontsuak zuek, behartsuak,

Ontasunez itoak, tristerik bizi direnentzat...E.d.o.

4/ Zoriontsuak zuek, hastiatuak, baztertuak...

Aiseriari, modari eta utzikeriari buru eginez

Jesusen mezua zabaltzen lehiatzen direnentzat...E.d.o.

(Beste)

* Aita guziz bihozbera, ikusazu gure egiazko zorion gosea, emaguzu zure Izpirituaren indarra eta bakea. Zuri galdatzen dautzugu neurritz gairidika maitatzen gaituzuna, J.K.g.J.b.

E.g.o. – Huna, Jainko Jauna, zure Esker-Onaren ogia eta arnoa. Garbi egin eta bihotz berri gaitzala. Zure nahia egiten dugunek, zure zorionean parte izan dezagun. J.K.g.J.b.

Kom. – Bozkariatzen gira Kristo baitan komuniatzen dugulako ...

Jainkaoren erresuman ez da izanen ez tristerik, ez eririk, ez etsipenik...

A.o. – Dohatsu gira Jesu-Kristori esker gure Aita benedikatzten dugulako...

Aintza, zuri Aita, parte hartu dugun misterio hunen gatik;

Zeruko dohainak gozatu ahal izan ditugu gure bihotzeko sinestearen sekretuan.

Emaguzu zure dohainen gosea, hobeki ezagut-dezagun egiazko bizia, zure seme J.K.g.J.b.

7. IGANDEA C

Sar. - Bakean eta elgarrekin harmonian bizitzea, horra gu guzien lur huntako ametsa.

Bainan bortizkeriak, zuzengabekeriak, aiseriak, sos,
plazer eta ohore, mendeku goseek errausten gaituzte.

Jesusek girixtinoei proposatzen daukun zorionaren mezua

beste mundu batekoa iduri du. Alta ba ote dugu beste aterabiderik :

“Maita ezazu zure etsaia, barka ezaiozu, idek zure bihotza, esku zabalekoa izan...”

Orduan gure lur honek ere zerutikako zerbait izanen du.

- Barkatzera deitzen gaituzun Jauna, emaguzu zure barkamena. U.J.

- Lagun gaitzazu maitatzen eta erakuts-aguzu zure bihotz ona. K.U.

- Zure Izpirituak ongiaren egiterat bultza gaitzala. U.J.

Ot. Jauna, gure Aita, zure Maitasun den Izpirituak gure bihotzak itxuralda ditzala.

Zure pentsamenduek gure gogoak molda ditzatela.

Orduan, Jesus Kristo zure semeak bezala,

barkatzeko eta gure bihotzen idekitzeko gai izanen gira,

hura bera bizi baita zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean, menderen mendetan.

1. Irak - Jainkoaren pazientzia eta barkamena, Davidek Sauelelentzat zuena bezalakoak dira.

2. Irak - Jesusen mundua berria da. Izpirituak moldatua. Ez da Adanen buztin zaharretik.

B.O. - Mendekuak eta bortizkeriak haurrak eta ahulenak dituzte lehenik kolpatzen.

Barkamendu eta bake egileek aldiz zutik emaiten.

F. o. - Jesusek bururaino maitatzera gonbidatzen gaitu. Galda dezogun bere indarra haren segida hartu nahi dutenentzat.

1/ Etsaiak maitatzera entseatzen direnentzat E.d.o.

2/ Beren ingurukoen zutik emaitera entseatzen direnentzat. E.d.o.

3/ Bake egileentzat. Eta berdin barkatzea zaila zaiotenentzat. E.d.o.

4/ Herriaren eta ekonomiaren arta dutenentzat. E.d.o.

5/ Justizia eta ontasunen elkarbanaketaz ardura dutenentzat. E.d.o.

6/ Maitasunetik eta ontasunetarik baztertzen ditugunentzat. E.d.o.

* Badakizu, Jauna, zein zaila zaigun barkatzea.

Entzun-zazu zure hurrek Aitari egiten dioten otoitza.

Zure maitasunean bizi gaiten, Zu bizi baitzira,

zure Seme eta Izpiritu Sainduarekin batera, menderen mendetan.

E.g.o. – Zuri ekartzen dauzkizugun ontasun hauek, saindu egizkizu.

Onar-zkitzu izpirituzko eskaintzak bezala, giza seme-alaba guzien maitatzeko
gai egin gaitzaten. Zuk menderen mendetan maitatzen dituzun bezala.

Kom. – “Bazter utz zuen usaiak, maita zuen etsaiak”.

A.o. – Jesusen baitan, Jainko Aitak baketu gaitu. Bihotz batez otoitz egin diezogun.(...)

On izan zaigu Jauna, zure ospakizun huntan parte hartzea,

eskaintza berak eginez, komunione bera biziz,

barkamendu bera emanez. Jesusen idurikoak egin gaitzazu

haren Maitasunean parte har dezagun menderen mendetan.

GARIZUMA 1. C

Has. – Jesusek basamortuko bidea hartu du. Egiatzko Biziaren bideak mortutik iragan behar du. Bazkoko bidean, Kristo Jauna gure aintzinetik doakigu, Eskua luzatzen dauku segi dezagun kurutzeraino, berpiztearen bozkarioraino. Izpirituak gida gaitzala Garizumako berrogoi egunetan zehar.

Jainkoaren grazian fida girela ...

- Jesus, Izpirituak desertura eremanik, zure populuaren gidatzera etorria, U.J.

- Kristo, zure graziaz asebate-zazu, gosez dagon zure populua. K.U.

- Jesus, ahultasunak barkatzen dituzuna, emozu indar zure populuari. U.J.

Ot. Jainko Aitari buruz itzul gaiten...

Jainko guziz ahalduna eta urrikalkorra, emaguzu, garizumako bidean

Jesu Kristoren hobeki ezagutzeko grazia:

haren argiari idek gakizkion, Jesusi hurbilagotik jarraikiz.

Zure Semearen segida hartzera gonbidatzen gaituzularik,

Bazkoko eta menderen mendetako zorionean sartzeko.

1.Irak. - Gure bizia ibilbide luze bat besterik ez da.

Borroka bat hiletarik bizira. Abraham-etarik hasirik...

2.Irak. – Garizumako 6 azte hauetan deituak gira gure bihotzen eta gogoen idekitzera.

B.O. – Jesusen hiru tentaldiek gure bidean ditugun hainbeste traba itxuratzen dituzte.

Ikus dezagun Jesusek nola gainditzen dituen.

F.o. – Mende huntako jende osoari doakio gure otoitza.

Nehork ez luke bide bazterrean utzia egon behar.

1 / Hainbeste tentaziok errausten gaituzte gure mundu konsumitzaile huntan.

Ihardokitzen ez dakitenentzat, irabazi basak egiteko gogoa duten hainbesteentzat...E.d.o.

2/ Garizumak bihotz berritzera deitzen gaitu.

Usaiako terrentak baztertuz egiazki lot gaiten girixtino biziari. E.d.o.

3 / Elizak, gaur, katekumeno berriak deitzen ditu. Bataioko bidea hartu dutenentzat,

hauen laguntzaileentzat eta bataiatu guzientzat E.d.o.

4 / Giza-semea ez da bakarrik ogiz asetzen bainan maitasunezko hitzez eta ekintzez ere.

Behartsuentzat, etsituentzat, bakardadean bizi direnentzat.

Eta hauen denen arta dutenentzat. ...E.d.o. (Eta beste...)

* Jauna gure otoitzeri batzarri on egiozute.

Bultza gaitzazu denak elgarrekin bazkoko bozkariora

Zu menderen mendetan bizi zirena.

E.g.o. - Euskariztia hunekin Bazkorako bidea hasi dugu.

Lot ezazu gure bihotza eskaintza haueri,

zure grazia etor dadin gure baitara

eta benedikatuko zaitugu orain eta menderen mendetan.

Kom. - Gizona ez da bakarrik ogiz bizi, bainan Jainkoaren ahotik jalgi hitz oroz.

A. o. – Otoitz dezagun Jesu Kristoren hitza eta grazia emaitren dauzkiguna. (...)

Eman daukuzun ogiak berritu gaitu, gure fedea hazi du, gure esperantza azkartu.

Emaguzu beti Jesu Kristo egiazko ogi biziaren gosea

eta berdin haren ahotik jalgitzen den hitzarena, orain eta menderen mendetan.

GARIZUMA 2. C

Has. - Gure begi beharriak itzul ditzagun Aita zerukoaren alderat.

Entzun dezagun haren mintzoa : “Hau da nere semea, nik hautatua, entzun zazue”.

Ongi begiratzten badugu, huna Jainko Aitak erakusten daukula, baztertua, behartsua eta etsitua... “Hau da...ene Seme maitea !”

- Jesus, Jainko Aitaren Seme maitea, emaguzu indar, ahula da gure fedea. U.J.

- Kristo, Jainko Aitaren Semea, emaguzu zure sua, ahula da gure maitasuna. K.U.

- Jesus, Jainko Aitaren Semea, eman gaitzazu zutik, ahula da gure esperantza. U.J.

Ot. - Jainko haur egin gaituen Zeruko Aita otoitz dezagun.

Bere Semea seinalatzen dauku.

Aita, zure Izpirituak gidatzen gaitu, basamortutik Itxuraldatzearen mendirat, zure Semearen entzuterat.

Egizu zure hitzetan kausi ditzagun behar dugun indarra eta argia

Jesu Kristo gure Jaunaren aurpegian zure gloria ezagut dezagun, orain eta menderen.

1.Irak. – Abraham hautatuz Jainkoak esperantza berria etorkin kuple antzu batetan ezarri du.

2.Irak. – Girixtinoen esperantza beti gure aintzinean dugu, hoberena etortzekoa da.

B.O. – Lege berria hitz baten gainean finkatua da...

Garizuma pizterainoko jalgitze bide berri bat da.

F.o. – Huna nun giren mendi baten gainera iganak bezala otoitz egiteko. Soa itzul diezogun gizon guziak argitzen dituenari.

- Abrahamen seme alaba guzientzat, erlisione guzietako sinesle zintzoentzat...E.d.o.

- Katekiztentzat, haureri Jesusen egiazko aurpegia nolakoa den erakutsi behar dutenentzat...

- Erientzat, argi iraunkor baten bila dabilzanentzat, E.d.o.

- Igandez elkaturik Jaunaren aintza kantatzen dugunentzat. E.d.o. (edo este xede...)

* Zure argia ateratzen duzularik esperantza berriak sortzen dituzu, Jauna.

Eskerrak zure maitasuna agertzea gatik.

Gida gaitzazu Aitaren aintzaren bidean menderen mendetan.

E.g.o. – Eskaintza hauek saildu egin zkitzu, Jauna, zure seme itxuraldatuaren bitartez.

Haren aintza eta argiaren bertutez bekatutik garbi egin gaitzazu

eta Bazko bozkarioz bete J.K.g.J.b.

Kom. – “Hau da nere semea, nik hautatua, entzun zazue”

A.o. - Komunioneak egiazko biziari iratzaririk, oraino otoitz egin dezagun (...)

Benedikatua izan zaite, zure ogia gurekin partikatu duzun Aita.

Zuk gure iduriko izan nahi izan duzu zure loriaren parte izan dezagun.

Ogi hunek itxuralda gaitzala, zure iduriko eginez.

Zuk, Zure aintza agertzen duzuna orain eta menderen mendetan.

GARIZUMA 3. C

Has. - Jainkoa ez dugu ikusten, aldiz, haren eragina ezagut dezakegu, haren lekukoak entzun eta ikus ditzakegu.

Populuena, familien, bakotxaren historiaren barnean da.

Historia bakoitza zorionez eta zoritxarrez,

karrasiz eta irriz, kausitzez eta etsipenez josia da...

Horien denen artean Jainkoa hor dago iraunkor bainan ez ahanzkor.

Jainko urrikaltsua eta hurbila dugu mezan opatzen.

- Jauna, badakigu maite gaituzula, halere ahanzkorrak gira. U.J.

- Kristo, nahi dugu besteak kanbia dituen bainan gu ez. K.U.

- Ezagutu nahi zaitugu, bainan ez zaitugu bilatzen. U.J.

Ot. - Apalik eta Konfidantza osoz, gure salbatzaileari buruz itzul gaiten (...)

urrikalmenduaren eta samurtasunaren Jainkoa, Jesu Kristoren Jainkoa,

Maitasun iturria, erran daukuzu nola ardietsi bekatuen barkamena :

barur eta otoitz eginez bai-ta esku zabalekoa izanez.

Gure ahulezia eta hutsak aitorturik, zutik eman gaitzazu

eta gida egiazko askatasunari buruz. J.K.g.J.b.

1. Irak. - Moisi agertzen zaion Jainkoa ezin handiagoa eta biziki hurbila da.

2. Irak. - Zerrgaitik irakurri testamendu zaharra.

Jainkoa nor den eta nola jokatzeko duen ikasten baitugu.

3. B.O. - Udaberria heldu delarik lurra prestatzen da. Jesus,

baratze zaina, lehiatzen da landare bakoitzak fruitu ekar dezan.

F. O. – Jainkoa bihozbera da, pazientziaz betea.

Otoitz egin dezagun egoera txarrean kausitzen direnentzat.

1 /Zure Elizari eman diozu berri-onaren zabaltzeko ardura. Esku zabalekoa izan dadin, begirunez onar ditzan maitasunean handitu nahi duten guziak. E.d.o.

2/Mundua lasterka dabil irabazien ondotik, aldeko lagunak behar orduan lehertuz

Munduko arduradunek sekulan ez dezaten gizona beste interesen azpitik eman, E.d.o.

3/Denek nahi dute erreusitu, fruitu eman. Ontasunez eta gogoz hain pobre direnentzat, nun ez baitute nahirikez eta esperantzarik ere, E.d.o.

4/ Haurrak eta helduak bataiorako prestatzen ari dira, Beti eta gehiago inkoari hurbilago bizi nahiz, haientzat izan gaiten argi, E.d.o;

* Gure egungo deiak entzun dituzu,

erantzun ezaiozute eta emaguzu galdatzen ez dautzugu ongia J.K.g.J.b.

E.g.o. – Eskaini daukitzugu ontasuneri ongi etorria egin diozute. Eukariztia huni esker, gure bekatuen barkamena ardiets dezagun galdatzen dautzugu, eta ere gure anaia-arreberi barkatzeko grazia zuk guri barkatzen daukuzun bezala. J.K.g.J.b.

Kom. – “Mahastizainak pikondoa aitzurtu eta ongarria eman behar dio, fruitu ekar dezan.”

A.o. – Otoitz hau doakiola bereganat deitzen gaituen Jainko Aitari...

Jainko gure Jauna, sutan erretzen ez zen sasia baino harrigarriago da

zure ganik ukan dugun ogia... Bizi berri baten hazi izan dadila, zure aintzarentzat,

menderen mendetan benedikatua ziren Jainkoa.

GARIZUMA 4. C

Has. – Jainkoa maitasun da. Maitatzetik ezin geldituzko Aita da.

Tematsuki maitatzen duena.

Gauak eta egunak, seme galduaren haiduru dago.

Haurra, etxeratu orduko, presaka leihatzen da behar diola besta bat egin.

Guri ere maitasuna gaindizka eman nahi dauku, bizia nasaiki...

Iratzar gaiten Jainkoaren urrikalmenduari, iratzar gaiten maitasun den Jesu Kristori...

- Jauna, ahanzten dugu zein ona ziren guretzat. U.J.

- Kristo, nahi dugu ezagutu barkatzeak emaiten duen bozkarioa. K.U.

- Jauna, galdua zenazren salkbatzera etorri zeirena, U.J.

Ot. Jauna gure beha dago. Besoak zabalik... (...)

Barkakor eta bihozbera ziren Jainkoa, mundu guzia salbatu duzu zure semea igorritz.

Indarrean emazu populu girixtinoaren fedea, lehia dadin kartsuki

urrengo Bazkoaren ospatzera. Zure salbamenaren bozkarioa goza dezan J.K. g.J.b.

1. Irak. - Basamortuko berrogoi urteek Garizumako berrogoi egunak itxuratzen dituzte.

2. Irak. - Paulok baketzeko deia egiten dauku. Barkatzen ez duena ez da Jainkoarena.

B.O. - Jainkoa, artzain ona bezala, gehiago bozkariatzen da ardi galdua aurkitu duelarik.

F.o. – Jainkoa beti gure beha dagon Aita da. Maitekiro haren eskuetan eman ditzagun

Behar orduan diren aldeko lagunak...

1 / Barkamena, bizi iturri da... Jainkoaren barkamena emaiten duten Apezentzat.

Gure populuen baitan, bake egile eta emaile izan dituen, E.d.o.

2 / Barkamena, maitasunak hartzen duen arriskua da...

Barkatzen eta bake bide berrien aurkitzen saiatzen diren buruzagientzat. E.d.o.

3 / Barkamenak bakea dakar... Zaituak diren familientzat, barkamendurik entzun ere nahi ez dutenentzat. Berexteek egiten dituzten biktimentzat. E.d.o.

4 / Barkamenak bozkarioa sortzen du... Guretzat barkatzea zaila zaukularik, gure kalkuluen, bekaizkerien, ttipikerien menpe gaudelarik.

Barkamendu beharrik ez dutela uste dutenentzat...E.d.o.

*Jauna zato zure bakea gure bihotzetan xertatzera , zure maitasunaz gose gaudela.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

E.g.o. – Benedikatua izan zaite zure etxean onartu gaituzulakotz.

Bozkarioz eskaintzen dautzugu, gure bizia salbatzen duen sakrifizioa.

Apalik eta begirunez ospa dezagun mundu guziari emana zaion salbamendua J.K.g.J.b.

Kom. – “Bozkaria zaitezte nerekin, aurkitu baitut ene ardi galdua.”

A.o. - Otoitz dezagun oraino bere mahaira gonbidatzen gaituen Jainkoa...

Bekatuen barkamenarekin Euskarizti hau ukan dugu zure eskutik, zure maitasun neurrigabearen seinale.

Urrikalmenduaren Jainkoa, otoi, zure graziak zutarik hurbil

eta bekatutik urrun atxik gaitzala, zure zerbitzatzeko gai izan gaiten,

Jesu Kristo zure semea bezala, menderen mendetan.

GARIZUMA 5. C

Has. – Jesusen hitzek, Jesusen jestuek libratzen gaituztela, Ebanjelioak ez du besterik errepikatzen.

Usaia zaharrak aldatu ? Bihotzak berritu ? Zer balio du ?...

Ez ote dugu bada burua altxatu behar ?

Ez ote dugu zutitu behar mundu berrian sartzeko ?

Amodio berri batek ez ote gaitu berriz harrotu behar ?

Ospakizun huntan izanen dugu Jainkoaren maitasunetik, elgarrekin, zer jasta.

- Nola etorri zure ganat ez bazira, jadanik, zu gure ganat etorri ?

Beti gure beha zaituguna, U.J.

- Nola entzun zure boza ez baduzu gure bihotza idekitzen ?

Beti deika ari zaituguna. K. U.

- Nola parte har zure mahainan, ez bagaituzu zuhaurek gonbidatzen ?

Hitz batez baketurik emaiten gaituzuna, U.J.

Ot. - Fida gaiten gure Jainko amultsua baitan (...)

Zure graziak libra gaitzala besten jujatze beharretik. Kristo bezala egin gaitzala, bozkarioz barkatzeko prest. Munduaren maitasunez bere bizia eman duen zure semearen bitartez, eta Izpiritu Saindua baitan, zurekin errege baitira menderen mendetan.

1. Irak. - "Huna mundu berri bat egiten dutala". Jainkoa beti mundua berritu nahiz ari da.

2. Irak. - Jondoni Paulorentzat biziak arrazoi bat besterik ez du : Jesu Kristo piztua.

B.O. Barkamen eske heldu denareztat, Jainkoa baitan ez da kondenurik.

F. o. - Jainkoaren urrikalmenduari fidaturik, erakuts ditzogun oraiko munduaren galdeak eta esperantzak.

1 / Jesu Kristori hurbildik jarraikiak direnentzat : apez, serora, Fraile

Jainko urrikaltsu baten seme eta lekuko izan ditzen, E.d.o.

2 / Eliza sainduarentzat : Gure mundu huntan izan dadin

barkamendua ardiesten den lekua. Eta barkamendu horren seinalea, E.d.o.

3 / Kondenu bat ukan dutenentzat : Jainkoaren esperantza berria izan dezaten, E.d.o.

4 / Katekumenoentzat : Ebanjelioan indar aurki dezaten girixtino guziekin batera, E.d.o.

* Jainko zuzen eta urrikalkorra, zure haurren otoitzak entzuten dituzu.

Bilatzen zaituztenak gida zkitzu. Bazkoko bidean, girixtino guzieri emozute zure grazia.

Eta eskerrak zuri, bizi-arazten gaituzulako, gizaldi eta gizaldietan.

E.g.o. – Jainko Aita guziz ahalsua, zure zerbitzarien deieri erantzun zozute

girixtino sakrifizio hunek garbi egin ditzan. Fedean argiturik

Jesu Kristoren bazkora eraman gaitzazu, zu beti bizi zaituguna menderen mendetan.

Kom. – Nik ere ez zaitut kondenatzen : zoazi, eta ez egin gehiago bekaturik.

A.o. – Eukariztia hau bururatzean, gure otoitzak batera ditzagun. (...)

Jainko guziz ahalduna, zure gorputz eta odolean kumuniatu dugunak,

Jesu kristoren seme-alabetan konda gaitzazu.

Egizu guk ere gure hurbilekoeri ongi etorri bera egin diezotegun,

zu menderen mendetan benedikatua zirena

ERRAMU C

Has. – Aste sainduaren atarian gaude, hobengabe baten drama izigarria bizitzeko. Jesusek bere baitarik bizia eman du. Bihotzeko maitasunaren distira baizik ez dauka indarkeria, axolagabekeria, beldurra eta herrari erantzuteko.

“Hozana” oihu egiten dugu gaur, bazkoz, “Aleluia” kantatzeko.

Anartean, Jesu Kristoren pasionea hurbiletik biziz, fedea indartzeko garaia dugu.

Benedikatua Jainkoaren iznean heldu dena...

Erramuen benedizioea

Jainko gure Aita, benedika zkitzu + zure seme Jesu Kristoren izenean ekarri ditugun erramu hauek. Zure benedizioea hauekin hel dadila gure etxeetara. Benedika zkitzu ere hemen bilduak diren fededunak. Jesu Kristo bururaino segitzeko gutizia duteneri emozute indar.

Hura baita gure Jaun eta errege, Izpiritu Sainduarekin bat, menderen mendetan. Amen.

Zure esku zaurituak altxatzen dituzu benedikatzeko. U.J.

Zure aurpegi urratua argitzen duzu barkatzeko. K.U.

Zure bihotz kolpatua, guretzat amodioz gaindizka duzu. U.J.

Ot. - Kristoren aintza oihukatu dugu. Bil gaiten ixiltasunez. (...)

Jainko gure errege eta salbatzailea, sinesten dugu maite gaituzula, Jesus, zure semea, eman daukuzulako. Egizu esperantza handirekin sar gaiten Bazkoko misterioan

Eta parte izan dezagun Jesu Kristoren berpiztean. Orain eta menderen mendetan.

1. Irak. - Jaunaren zerbitzariak, sofrimenduak errautsia, Jainkoan zaukan fidantza osoa.

2. Irak. - Apaldua izan dena altxatua izanen da.

B.O. - Bai, Jesu Kristok pizteko sofrikariotik pasatu behar zuen.

F.o. – Jesus goraiatuari eta ber denboran kurtutzefikatuari doakio haurrideentzat egiten diogun otoitza.

1 / Zure pasioneak dirau, zure Eliza hertsatua delarik, fedearen gatik giristinoak hertsatuak direlarik, Esperantzak bermaturik E.d.o.

2 /- Zure pasionea batzuek oraino bizi dute :

Gerlek eta bortizkeriek errautsiak direnentzat, esperantzak bermaturik E.d.o.

3 / Zure pasioneak segitzen du : kondenatuekin, etsaigaorekin, zuzenkontra joak direnekin, esperantzak bermaturik E.d.o.

4 / Zure pasionean ez da bururatua,

gure gatasken biktimekin, eri eta ezinduenkin, esperantzak bermaturik E.d.o.

* Jesus Jauna, Aitaren mezularia, begira ezaiozu sofrikarioak hainbeste markatzen duen mundu huni. Zato oraino bizi eta bake emaitera. Egun saindu hauek zutaz hurbil gaitzaten otoizten zaitugu, zu errege zirena menderen mendetan.

E.g.o. – Ogi eta arno hauekin batera gure bizia zure esku emaiten dugu.

Jainko gure Aita, egin bedi zure nahia ! Ez dugu zure barkamena merezi bainan zure miseriardiaren beha gaude orain eta menderen mendetan.

Kom. – “ Aita zure eskuetan emaiten dut nere izpiritua...”

A. o. – Aitari otoitz egin diezogun Jesu Kristorekin hasi duen salbamenak segi dezan. (...)

Benedikatua zira Jauna, komunione hunekin indartu gaituzulako. Zure dohainetan sinesten osoa dugula; Zuk, gure esperantza piztu duzunak, egizu hel gaiten datorren berpiztearen aintzarat han Jesusekin biziko baigira menderen mendetan.

BAZKO EGUNA C.

Has. – Huna Jainkoaren eguna. Huna Bazko berria !

Huna Jesu Kristo piztua. Gutartean da. Gaur, esperantza berri bat argitu da.

Argia nagusitu da ilunbeari. Bizia heriari. Maitasuna herrari.

Jesu Kristo piztu da eta gu ere harekin piztuko gira.

- Jauna, bataioko urak bultza dezala bizi berria ...U.J.

- Kristo, bazkoko bildotsa, bekatuetarik garbi gaitzazu... K.U.

- Jauna, harri bizia, gizonek baztertua, fedearen oinharria... U.J.

Ot. – Piztu da Kristo! Heriotza garaitu du. Idek ditzogun gure bihotzak (...)

Aintza zuri, Jainko gure Aita. Zure bozkarioan parte hartzera gonbidatzen gaituzu !

Egun, zure Semeak herioa garaituz geroz, betiereko bizia eman daukuzu.

Zure Izpirituak egin gaitzala gizon eta emazte berri,

Jesu Kristorekin gu ere bizi berri bati pitz gaiten.

Harekin errege baitzira, Izpiritu Sainduarekin bat, menderen mendetan.

1. Irak. – Gure sinestea apostoluen lekukotasunean finkatzen da.

2. Irak. – Udaberrian, ogiaren egiteko, altxagarri berria hartzen zen.

Jesus da egiazko altxagarria.

B.O. Sinesteak bultzaturik, Lehenbiziko lekukoek zer lasterrak ez zituzten egin !

F.o. - Bazko zer garaipen miresgarria !

Bizian sinesten duten guzuen otoitza presentatzen diogu Jaunari.

1 / Petrik, Jesu Kristo bizi dela iragartzen–mezutzen- du : Haren ondoko den aita sainduarentzat eta haren laguntzaile diren Eliza-buruentzat. E.d.o.

2 / Jesusen pizteak, bizi berri bat sortzen du : buruzagientzat, zuzentasunak eta anaitasunak bultzaturik, bizi hobe bat eraik dezaten denen laguntzarekin. E.d.o.

3 / Sofrikarioa eta heriotza misterio handiak gelditzen dira.

Erientzat eta hauek laguntzen dituztenentzat, doluan diren falmilientzat... E.d.o.

4 / Bataiatu berrientzat, haueri esker Elizak har dezan hats eta indar, E.d.o.

* Jauna, erantzun ezaiozute gure otoitzeri,

mundu hunek, berriturik, zure aintza kanta dezan menderen mendetan.

E.g.o. – Jainko gure Aita, Zorionez gaude zure gomitari erantzun dugulako.

Bazkok bozkariaturik, ogi eta arno hau eskaintzen daukitzugu sakrifizio berri batentzat.

Pizte hunen bidez ere sortu duzu Eliza.

Zure indarrek miresten gaituzte, zu gure Jaun eta Errege zaituguna,

Jesu Kristorekin eta Izpiritu Sainduarekin batera, menderen mendetan.

Kom. – Ikusi zuen eta sinetsi zuen....

A.o. – Aintza zuri Jainko fidela. Gauaren erditik zure Semea piztu duzu.

Aintza zuri, maitasunezko Jainkoa.

Jadanik sakramenduekin indartu duzun Eliza begira ezazu.

Zure bizian parte hartzearen bidez

egizu gure haurrideekin zure piztearen argitan bizi gaiten, J.K.g.J.b.

BAZKOKO 2. IGANDEA. C

Has. – Piztu da Jauna ! Bakea piztuaren lehen oparia dugu, bere haurrideeri zorionez egiten daukuna : Aitaren barkamenaren bakea. Ikusi gabe sinesten dugu, haren maitasunean konfiantza osoa baitugu. Jesus amodio biziz heldu zauku gure duda-muden ezabatzerat, gure zaurien sendatzerat eta ilunbeen argitzerat, bataioaz geroz harekin bat gaudelarik.

- Jesus Jauna hiletarik piztua. U. J.

- Kristo, bakearen ekarle. K.U.

- Jesus Jauna, Izpiritu Sainduaren emaile. U.J.

Ot. – Hilak ginen eta bizi gira. Konfiantzak bultzaturik otoitz egin dezagun... Jainko urrikalmendutsua, Pazkoko orroitgarri hau eginez, zure populuaren fedea pizten duzu. Zure graziaz emenda zazu gu-baitan, sinestea, beti eta hobeki adi dezagun zure bataioak egin gaituela garbi eta berri, zure Izpirituak gaituela piztu, zure odolak gaituela salbatu. Orain eta menderen mendetan.

1. Irak. – Jesu Kristoren piztearen indarrak oldar handia eman diote dizipulueri. Haien ahulezietarik eta beldurretarik libratuak elkargo bat osatu dute, lehen Eliza.

2. Irak. Piztearen ondotik, Jesusek seinale asko eman diozkate bere dizipulueri haiekin dagola adierazteko.

Berriona – Zoriontsu ikusi gabe sinesten dutenak... Dizipulueri gertatu zaiotena, mezan bilduak gireneri gertatzen zauku, igandero.

F.O. – Galda diezogun Jainkoari, emankor eta amultsu izan dadin bere haurrentzat...

1 / Bakea zueri...Bakea, girixtinoek eta sinesgabeek gure egin dezagun, eta bakeak susta gaitzan gure atsegabeetan. E.d.o.

2 / Bakea zueri...Munduko buruzagiek, behin eta berriz justizia eta bake bideak bila ditzaten. E.d. o.

3 / Bakea zueri... Eri eta ezindueri esperantza ekarriko diotenak, altxa dituen. E.d.o

4 / Bakea zueri...Bakea izan dadin gu girixtinoen lokarri eta indar, bakoitza gure sailean Jainkoaren erreinuaren eraikitzaile. E.d.o.

*Jainko Aita, entzun otoi gure deiak. Gutarik bazkotxak goza dezan zuk eman bakea. Zu, zure Semerarekin eta Izpiritu Sainduarekin bat bizi zaituguna, orai eta mend. me.

E.g.o. – Zuri gaude, Jauna. Gure bizi guziarekin batera, onar-zkitzu gure eskaintzak. Fedean eta bataioan erreberiturik,denak hel gaiten betiereko zorionera. JKGJb.

Kom. – Huna Kristo piztua ! Dohatsu ikusi gabe sinesten dutenak.

A.o. – Jauna, Zure Semea ez dugu gehiago gure begien aintzinean, bainan haren presentzia eman daukuzu Eukaristia hunen bidez. Nasaiki emaiten daukun bakeak ekar diezagula sinesteko zoriona, ospean ikusiko dugun eguna arte, gizaldi eta gizaldi guzi.

BAZKOKO 3. IGANDEA C

Has. – Gu, itsasoan, ekaitzaren begian etsituak gaudelarik, itsas-hegian bada norbait gure beha dagona. Eukaristia bakoitzean, hura bera dago gure beha. Gure dudamudak eta ahuleziak ezagutzen ditu. Badaki ere maite dugula, gure maneran.

Egun behin eta berriz deitzen gaitu prestatu daukun apairu huntara :

- Jesus Jauna, amodioz emana, herraren katea hausten duzuna. U.J.

- Kristo, heriotza garaiturik zure gorputza hazkurri emaiten daukuzuna. K.U.

- Jesus Jauna, gure bekatuak barkatu eta zure bakea emaiten daukuzuna. U.J.

Ot. - Norbait dago, itsas-hegian, ilunbeetan otoitzean daudenen zain...

Jainko Jauna, zure populua atxikazu bozkarioan, zuk dizkiozu emaiten indarra eta gaztetasuna. Zuk dituzu Jainkoaren seme-alaba guziak duintasunez zutik eman.

Finka gaitzazu piztearen esperantzan, Jesus Kristo gure Jauna, gurekin dagola, goresten dugularik orai eta menderen mendetan.

1.Irak. – Jesusen piztearen berria, berri miresgarria izan da bainan ere berri iraultzailea, aldatzera deitzen gaituelakotz;

2.Irak. – Apokalipsian, dohatsuek eta izadi guziak gorai patzen dute Jesus-Bildotsaren garaipena.

Berriona – Jondoni Petrik, Jesus hil aintzin, 3 aldiz arnegatu zuen. Hemen hiru aldiz aitortzen dio bere maitasuna. Orduz geroz bilakatu da Elizaren barkuaren gidari.

F.o. – Jesus laguneri agertu zitzaiohen. Galda diezogun, egun ere, bere maitasuna ager dezan... Bere gain har ditzan gure xedeak eta Eliza guziarenak:

1 / Aintzindari eta buruzagi guziek ahulentzat eta ezinduentzat izan dezaten arta

2 / Aita Saindu, apezpiku eta Elizaren barnean lanean ari direnentzat, lana alferretan egiten dutela iduri zaiotelarik eta sarea nun bota ez dakitelarik, finko sinets dezaten Jesus bera ari dela lanean, E.d.o.

3 / Federik gabe, ilunbeetan daudentzat, girixtinoak eta bihotz onekoak altxa diten, haien ondoan bide egiteko, E.d.o.

4 / Eliz-elkargo huntan partaide giren guzientzat, Jesusek “Zatozte askaltzera !” erraiten daukularik, bozkarioz parte har dezagun, igandero, Jainko Aitak prestatu apairuan, E.d.o.

* Jesus Jauna, dizipuluak bezala, ilunean galduak gabiltza, deus hartu gabe, iduriz debaldetan. Zure seme-alaba guzieri ager ezaiguzu zure maitasun samurra, Zu beti bizi eta ondoan ari zaituguna, menderen mendetan.

E.g.o. – Onets-azu Elizak, besta egun huntan, egiten dautzun eskaintza:

Maitasun hain handiaren sorburuan izan zira eta izanen;
sakramendu hau betiereko zorionean lora dadila. JKgJb.

Kom. – Jesusen ogi bera partikatzen dugularik : “Jauna da !” dugu denek aitortzen.

A.o. – Bihotzak elgarretaturik, egin dezagun otoitz...

Begi onez ikusazu, Jauna, erreberritu duzun populua. Jesusen hitzek bete dauzkigute bihotzak eta haren ogiak hazi gaitu. Bizitza izan bekigu itsas-bazter hura bezala :

Jesus egun guziez hor kausi dezagun, betiereko apairurat heldu aintzin, gizald. gizal.

BAZKOKO 4. IGANDEA C

Has. – Erromako Katakunbetan, ikus daiteke, Jesusez egina izan den lehen marrazkietarik. Erakusten du Jesus, artzain gazte baten itxuran, sorbalden gainean ardi bat deramala. Hain segur ardi galdu bat. Bihozberatasuna, horra lehenbiziko giristinoek Jesusi ezagutu dioten kalitatea. Gaur ere, Jesusek maitasun berarekin gaitu deitzen, ardi galduak arta berarekin bilatzen. Gu, gure bideetan, Artzain onari jarraik gaiten, konfiantzaz, maitasunez eta esperantzaz...

- Jauna, gizaki guzien artzaina, ardi galduen galbideetarik salbatzera etorria. U.J.

- Kristo, gure izenaz deitzen gaituzuna, zure deiari gogor gaudelarik. K.U.

- Jauna, gure zauriak eta bihotzak esku amultsuz sendatzen dituzuna. U.J.

Ot. – Gure otoitz hau zeruko Aitari doakiola Izpiritu Sainduaren bitartez...

Aita, oroz gainetik handia zirena, Zure Semeari eman gaituzu, ardiak beren artzainari bezala. Egizu, haren mintzoa adi dezagun, munduko arrabots guzien artetik, eta haren hitzek erakuts diezaguten zu ganako bidea, Zu, beti bizirik ziren Jainkoa, g.g.

1.Irak – Jesus Jaunaren berriona, muga guzien gainetik, mundu osoari zuzendua zaio; nahiz, nehork nehoiz ez ongi onartu.

2.Irak – Jondoni Joanik erakusten dauku Jainkoaren populua ezin kondatuzko jendeketa bat bezala dela, denak Jesus-bildotsaren odolean bataiatuak.

Berriona. Egiazko artaldeak entzuten du artzainaren hitza, haren lana ezagutzen.

F.o. – Jaunak amodioz zaintzen ditu bere haur guziak, bihotzeko atea bakotxari idekia dagokio...

1 / Zure Elizaren artzaintzat, emozute zure Izpiritua, hitzaren eta sakramenduen kargua bihotzez bete dezaten. E.d.o.

2 / Artzain onak ardiak bezala, gutarik bakotxa gure izenetik ezagutzen gaitu.

Amodioz begira ditzan bakardadean daudenak, gorputzean eta bihotzean zaurituak,

3 / Berrionaren mezularientzat, Jesusen hitzaren hedatzea gatik hertsatuak direnentzat, Artzain onak eman diezoten pazientzia eta sostengu, E.d.o.

4 / Ogiz gose eta amodioz egarri direnentzat,

gutarik bakotxa izan dadin esku-zabalekoa eta amodio iturri, E.d.o.

* Jauna, eskerrak gaitz guzietarik zaintzen gaituzulako. Gure Bazkoko bildotsa eta Elizaren Artzain ona den Jesusen eskuetan uzten dauzkitzugu gure xedeak.

Zatozkigu zure bihotz onaren erakustera, beti maite gaituzulakotz, gizaldi eta gizaldietan.

E.g.o. – Guk ekarri eskaintza hauen bitartez, zure indarra erakutsiko duzu.

Egizu beti eskerdun izan gaiten, misterio hauek gutan segi dezaten zure salbatze lana eta guretzat izan dituen bozkario iturri.JKgJb.

Kom. Ni naiz Artzain ona. Neure ardiek ezagutzen naute bizia emaiten dut ardientzat

A.o. – Otoitz egin diezogun bizia emaiten daukun Jainkoari...

Gu guzien Aita, benedikatua izan zaitez Eukariztia hunentzat. Artzain onaren bihotz amultsuz begira gaitzazu eta idekaguzu zeruko erreinuaren egoitza. JK gure egiazko Artzainarekin eta Izpiritu Sainduarekin bizi baitzira menderen mendetan.

BAZKOKO 5. IGANDEA C

Has. – Haurrideak, “Elgar maita ezazue nik maitatu zaituztedan bezala!”

Zoriontsuak, guk, hitz haueri gorputz emaiten diotegunean. Lehenbiziko dizipuluen bideari jarraikitzeke, Jesusen deiari ihardesteko, badugu konbertitzeko beharra.

Jainkoaren maitasunari idek ditzogun gure bihotzak, bere nahitara molda ditzan :

- Orroit gaiten Bataioko urak berri egin gaituela. Aitor ditzagun gure bekatuak...(Ihinzta)

- Jainko guziahaldunak bekatutik garbi gaitzala

eta Eukaristi hunen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala. Amen.

Ot. Jainkoa ari da gure mundu huntan deika : konfiantza osoz otoitz egin diezogun. (...)

Jauna, gure salbatzera igorri duzu zure Semea, zure haur besoetako egin gaitzan.

Maite dituzeneri, bihotz onez begira-zozute. Kristo baitan sinesten dugunaz geroz, emaguzu egiazko libertatea eta betiereko bizia. JKgJb

1. Irak. Paulok eta Barnabek, Izpirituak bultzaturik, eliza-elkarte berriak moldatzen dituzte.

2. Irak. Munduaren hastapena eta bururapena Jainkoa da.

Eta, haren haurrak, gu, kontsolamenduaren jabe.

Berriona – Hil aintzineko hitzetan, huna Jesusen manamendu bihotzekoena :

” Elgar maita ezazue nik maitatu zaituztedan bezala.”

F.o. – Jainkoaren xedea da lurtar gizaki guziak bere maitasunean biltzea.

1 / Jesusen maitasunari gorputz emaita bere lana duen Elizaren alde. Eliza arduradun guzientzat, beren ekintzez eta hitzez Jaunaren manamenduari leial izan ditezen. E.do

2 / Haur eta gazteen alde, fedezko urratsak eginen dituztenentzat, sinestearen sua haien baitan bizirik atxik dezaten.E.d.o.

3 / Karitatea ez da aditu batzuen lana, bainan lehenik norberarena. Giristinoak izan gaitezen bakoitza bere mailan, mundu baketsu eta zuzenago baten eragile. E.d.o.

4 / Guhaurentzat, maitasuna guzieren emaitera

eta guzieren ganik errezebitzera deituak baigira,, berexkuntzarik gabe. E.d.o.

* Maitasunaren manamendua gogoan dugula, zuk bateratzen gaituzu

eta zure bozkarioa emaiten. Zure piztearen indarrak susta gaitzala

Jainko maitasunaren egunero bizitzera eta hedatzera. JKgJb.

E.g.o. – Jainko gure Jauna, esker onezko sakrifizio zoragarri huntan

zure Jainkozko izaitean parte hartzera gonbidatu gaituzu,

emaguzu gure bizi guzian leial izan zaitzagun. JKgJb.

Kom. – “Adarrak mahats-ondoarekin bat egiten ez badu, fruiturik eman ez dezake, zuek ere berdin, nerekin bat egiten ez baduzue.”

A.o. – Aita beraren seme-alabek bat eginik, egin dezagun otoitz : (...)

Aita guziz ona, ogi berarekin hazi gaituzu,

zure Izpirituaren bitartez, zure semearekin bat atxik gaitzazu,

maitasun bera elgarbanatuz beti berri egin gaitzazun menderen mendetan. JKgJb.

BAZKOKO 6. IGANDEA C

Has. – Elizan, Jainkoaren populua baitan, Izpiritua ari da borondate onen lauzkatzen, ekintzen bultzatzen. Elizak behar ditu egiazko sinesdun-fededunak : beren burua den bezala Jainkoa ganik esker onez onartzen dutenak, beren ahulezian Jainkoari leku egiten diotenak. Presta gaiten meza huntan parte hartzera, Jesusek eman bakeaz eta indarraz Izpirituak bete gaitzan.

- Jesus Jauna, Bazkoko iturri biziak egarri gira, U.J.

- Kristo, lantzaz ideki zure bihotzak esperantza berri bat emaiten dauku. K.U.

- Jesus Jauna, bataioan ukan biziaren berritze beharretan gaude. U.J.

Ot. – Kristo piztuak bere baitan bil gaitzala otoitz berean. (...)

Aita guziz ona, emaguzu Jesus Kristo piztua ospa dezagun kartsuki.

Bazkoko orroitgarria gure egin dezagun,

eta gure bizia Jainkoaren aintza bilaka dadin. JKgJb.

1 Irak. Jesusek hasi elgarretaratze lana, gataska guzien gainetik, apostoluek aintzina deramate, Izpirituaren laguntzarekin.

2 Irak. Jerusalem berriaren aipamenak Jesusek sortu Eliza orroitarazten dauku.

Berriona. Hona errepikatua, Jesus, Izpiritu Sainduaren bitartez, gure ondoan dagola.

F.o. – Gizaki baxotxa Jaunaren dohain miresgarriari idek dadin egin dezagun otoitz.

1 / Jauna benedika dezagun, lau haizetan hedatua den Elizaren gatik.

Su berak bero ditzan urruneko girixtinoak, hurbilekoak bezala. E.d.o.

2 / Jauna benedika dezagun, Jesusen lekukoen gatik. Zenbatek ez dute eri, zauritu, preso eta etsitueri, atsedean eta esperantza ekartzen. E.d.o.

3 / Jauna benedika dezagun, bake egileen gatik.

Konprenitu baitute ez dela bakerik ardiesten besoak kurutzaturik egonez. E.d.o.

4 / Jauna benedika dezagun, hemen bilduak giren guzien izenean,

ainitz baita oraino egiteko, bereziki Jainkoaren hitza gazteeri helarazteko. E.d.o.

* Jauna, gure otoitzeri egiozute batzarri on. Mundu hunen bakea eta zoriona zure haurren esku utzi duzunaz geroz, emozute argi eta indar zure obra osatzeko. JKgJb.

E.g.o. – Gure otoitza zuri igan dakizula (...)

Gure eskuek ekarri emaitza hauekin garbi egin gaitzazu. Zure urrikalmenduaren bertutez maitasunezko sakramenduaren errezebitzeko gai izan gaitezen. JKgJb.

Kom. – “Maite nauenak nere mezua begiratuko du. Nere Aitak maitatuko du eta biak etorriko gitzaizkio eta haren baitan biziko gira.”

A.o. – Kreatzaileak pizten eta ber-eraikitzen gaitu...

Jainko guziahalduna, Jesus Kristo piztuz geroz betiereko biziaren jabe egin gaituzu.

Emankor egin gaitzazu, mundu hunek zuk eman fruituak goza ditzan, zure amodioaren bozkarioan. JKgJb

SALBATORE C

Has. – Bozkaria gaiten Jesus gurekin dugulako nahiz eta gure gorputzeko begiek ez ikusi. Aitaren ondorat igana delakotz gutarik ezin hurbilago dago:

alabaina, girixtino haurride guziak Jesusen gorputz gira.

Gure salba-bideak eta bekatuen barkamena haren esku ditugu.

- Jesus Jauna, Aitaren osperat altxatua, gutarik lehena, U.J.

- Kristo, Aitaren osperat altxatua, guretzat otoitzean ari zirena, K. U.

- Jesus Jauna, Aitaren osperat altxatua, guri egoitza baten prestatzeko, U.J.

Ot. Jesus betiko aintzarat iganaren bidez, Jainko Aitari egin diezogun otoitz (...)

Zure Seme Jesus, ororen gainetik altxatu duzun Jainkoa, bihotzak idek ezazkiguzu

esker-onezko bozkarioari. Egizu adi dezagun zure Semearen aintzan sartzea,

gorputz beraren parte girenaz geroz, jadanik gure garaipena dela.

Aurpegiz aurpegi ikusiko zaitugun bitartean, gizaldi eta gizaldietan.

1. Irak. Entzuten dugu Elizaren hastapeneko kondaketa.

Elizaren historia egiten dugu guk ere.

2. Irak. - Jesus ez da bakarrik igaiten Aitaren ondorat.

Bere populu guzia harekin igan da.

Berriona - Jesus Kristo piztuz geroz, zerura igaiteak ez ditu dizipuluak tristerik utzi bainan bozkario handitan.

F.o. - Kristo Jaunak, Aitaren osperat igan-eta, segitzen du oraino

bere bitartekaritza gizonen alde. Junta dezagun gure otoitza harenari.

1/ Elizari emana zaio Jainkoaren hitzaren hedatzeko kargua. Beren bizia lan hortan ematen dutenentzat, eta beren familietarik urrun diren misionestentzat, e.d.o.

2/ Salbamena gizon guzietan eskainia zaio... Buruzagiek jende bakotxa errespeta dezaten haren sinestean, libertatean eta justizian. E.d.o.

3 / Lehen komunioa egiten duten gaztetxoentzat eta konfirmatuak izanen direnentzat, beren girixtino eginbideetan argi eta leial egon diten. E.d.o.

4 / Zeruari so daudenentzat: bizitzeko arrazoinen bila, promesa faltsuen biktima, sineste gosez dabilzenentzat. Gutartean Jainkoaren argi ekarleak altxa ditezten, E.d.o

* Jainko gure Aita, igor-aguzu otoi, zure semeak hitzeman Izpiritua eta bozkariotan beteko dugu berak eman daukun lana. Hari aintza eta goresmen menderen mendetan.

E.g.o. - Jauna, begira-zkitzu ekarri dauzkitzugen eskaintzak. Humilki aurkezten dauzkitzugu, zure Semearen zeruko ospean sartzekari. Misteriozko harreman hauek bizi araz gaitzabela Kristoren piztearen batera menderen mendetan.

Kom. - "Joanesek urez bataiatu zuen, bainan zuek Izpiritu Sainduaz bataiatuak izanen zirezte.

A.o. - Otoitz egin dezagun oraino...

Jainko Jauna, zure Semearen beha gaudela, haren izenean bildu gira zuri eskerren emaitako. Euskaristi hunek haz dezala gure esperantza, eta mundu huntan biziko gira haren lekuko. Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean errege baitzira gizaldi eta gi.

BAZKOKO 7. IGANDEA C

Has. – “Zerua zabalik ikusten dut eta Gizonaren Semea zutik Jainkoaren eskuin aldean.” Horra zer dion Estebek, lehen martirak, harrikaturik erahila izan aintzin. Beldura, herra, etsipena, dudak ez dira neholaz Estebe girixtino gazteaz jabetu. Hemen bilduak girenak sineste berak zutik atxikitzen gaitu, piztuak. Galda diezogun Izpiritu Sainduari, bere indarraren grazia, gu ere izan gaiten kartsu eta leial gure sinestean.

- Jesus Jauna, Aitak amodioz gure salbatzerat igorria. U.J.

- Kristo, alfa eta omega, hastapena eta bururapena. K.U.

- Jesus Jauna, Aitaren eskuin aldean jarria. U.J.

Ot. - Jesusen otoitzari junta dezagun gurea...

Jauna, entzun gure otoitza. Sinesten dugu Jesus munduaren salbatzailea, zure ondoan jarria dagola. Hitzeman daukuzu gurekin dagola ere denboren denboretaraino.

Azkar ezazu gure sinestea, zuri goresmen eta aintza zor dautzugula, Izpiritu sainduarekin, gizaldi eta gizaldietan.

1. Irak – “Ni ere pertsegitu banaute, zuek ere pertsegituko zaituztete.”

Jesusek errana Estebek laster bizi izan behar zuen.

2. Irak. – “Zatoz” da Jesusen deia. Oraiko dizipulueri lehenbizikoeri bezala dei bera egiten dauku.

Berriona – Jondoni Joanik Jesusen mezuaren muinera eramaiten gaitu.

F.o. – Otoitz egin dezagun, Jainko Aitaren maitasuna hel dakigun...

1 / Otoitzean ari direnentzat. Beren bizia otoitzari emana dutenentzat. Elizaren otoitzarekin bat, Jainkoak erakuts diezoten bere hurbiltasuna eta bihotz ona. E.d.o.

2 / Elizatik kanpo dabiltzan girixtinoentzat,

altxa ditzen dizipulu zintzoak Jesusen mezua hel dakioten. E.d.o.

3 / Familia berexientzat, herrak bere hartan preso dauzkanentzat,

barkamendurik emaiten ez dutenentzat, Jaunaren graziak hunki ditzan. E.d.o.

4 / Hil zorian direnentzat eta ondoan dituztenentzat.

“Berehala heldu naiz” Jesusen mintzoa bihotzaren min-minean entzun dezaten. E.d.o.

*Jauna, zure begitarte erakuts-zozute otoizten zaituzteneri.

Emozute gogo oneko guzietan zure maitasunaren Izpiritua. JKgJb.

E.g.o. – Gure eskaintzekin batera, onar-zkitzu zure girixtino jarraikien otoitzak.

Maitasunez eskaintzen dautzugun ospakizun hunek lagun gaitzala zure zerbitzatzen eta hel-araz gaitzala zeruko aintzara. JKgJb.

Kom. – “Egizu guziak bat izan daitezen, Aita, zuk nerekin bat egin duzun bezala.

Hauek ere bat egin dezaten gurekin.”

A.o. – Bizidun guzien Aitari egin diezogun oraino otoitz...

Benedikatzen zaitugu, Jauna, eukaristia huntan denak bat egin gaituzulako.

Ogi berak indarturik, eskaintza berean bat eginik, emaguzu bizian

Jaunaren maitasunean bizi gaitezen, betiereko aintzara heldu arte. JKgJb.

MEDEKOSTE C

Has.- Bizi da Kristo, gu baitan bizi. Jesusek hitzeman Izpiritua, Jainkoak betebetea emaiten dauku. Izpirituari esker dugu zeruko Jaungoikoa "Aita" deitzen.

Izpirituari esker dugu aldarikatzen Jesus Jaun dela. Izpirituari esker dugu aitortzen populu berean, anai-arrebak biltzen gaituela maitasunaren egian eta egiaren maitasunean. Presta ditzagun bihotzak Izpiritua gure baitan onartzeko.

- Jesus Jauna, zure izenean bildua den populuaz, U.J.

- Kristo, zure Izpirituak saildu egin duen populuaz, K.U.

- Jesus Jauna, zure odolez salbatu duzun populuaz, U.J.

Ot. – Izpirituaren dohainak lagun gaitzala gure otoitzean (...)

Jauna, Mendekosteko misterio hunen bitartez, herrialde eta erresuma guzietan hedatua den Eliza, saildu egiten duzu. Zure dohainak isur-zkiotzu ebanjelioen hastapenetan hasi maitasunezko lana bururaino eramanean dezan. JKgJb.

1 Irak – Mendekosteko gertakari harrigarri hunek kondatzen dauku Nola Izpiritu Sailduak dizipuluak bestelakatu zituen.

2. Irak – Nahiz gorputz hilkorak giren, Izpiritu Sailduaren bitartez betiereko biziaren jabe gira.

Berriona – Azken agur huntan, Jesusek ez gaitu umezurtz uzten. Laguntzailea igorriko duela hitzemaiten dauku.

F.O. – Izpiritu Sailduaren bitartez, otoitz egin diezogun Jainko Aitari.

1 / Izpirituak hats-berri eta bultza ditzan Eliza-buruzagiak,

gaurko munduak egiten dizkieten desafioak gaindituz, jakin dezaten girixtinoak ebanjelioaren bidetik gidatzen. E.d.o.

2 / Mendekosteko Izpirituak argi ditzan herri-buruzagiak, bake bideen bilatzen, ttipieri eta ahuleneri kasu handiena eman. E.d.o.

3 / Mendekosteko kontsolamenduzko Izpiritua jauts dadin gure artera, jakin dezagun pazientziak eta jendetasunez, sofritzen duten bihotzetan esperantza sortzen. E.d.o.

4 / Mendekosteko Izpirituak, batasun indarrak, herritar eta giristinoak bat egin gaitzan, maitasuna obratuz baigira Jesusen lekuko egiten. E.d.o.

* Gure Arimaren muina, Hats-berri, Hats-bizi ziren Izpiritua, zatorz lurarren bihotzen bozkariatzerara, Aitarenean bakearen erreinua obra dadin, Jesus Kristok adierazi bezala. Aitarekin eta Izpiritu Sailduarekin batasunean bizi baita gizaldi eta giz.

E.g.o. Jainko Aita, egizu, Izpiritu Laguntzailearen eta eskaintza hauen bitartez, Eukaristia hunen adimenean barnago sar gaitzen, zure egiaren atea zabal diezaguzun,

Kom. – "Maite nauenak nere mezua begiratuko du, nere Aitak maitatuko du, Aita eta biak etorriko gaitzazkio eta haren baitan biziko gira.

A.o. – Gorets dezagun Jainkoa, dohain guzien iturria. (...)

Jainko Aita, zure dohainak eman dizkiozu Elizari. Eman diozun grazian begira ezazu.

Saildu egin gaituen otordu hunen bitartez, Mendekosteko indarrak bultza gaitzala, eta mundu hau eramanean dezan betiereko salbamenera. JKgJb.

TRINITATE SAINDUA C

Has. – Besta da Jainkoa.... Bozkario, emankortasun, harreman, partikatze, batasun... Bat eta Hiru : AITA, SEME eta IZPIRITU SAINDU. Zenbat aldiz ez dugu entzun Jesusek erraiten "Aita eta ni etorriko gira..."; "Aitak igorri nauen bezala nik ere igortzen zaituztet"; "Aitak ene izenean igorriko dautzue Laguntzailea...." Onar eta barnera dezagun maitasunaren misterio hau, otoitz hunekin hasiz : Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean, amen.

- Jesus Jauna, Aitak gizon-emazte guzien salbatzera bidalia. U.J.

- Kristo, Aitaren ondoan gure bitarteko zaituguna. K.U.

- Jesus Jauna, Aitarekin eta Izpiritu Sainduarekin batasunean bizi zirena. U.J.

Ot. – Gure otoitza Jainko Aitari doala, Jesus Kristoren Izpirituak har gaitzala. (...) Jainko gure Aita, Zure egiaren hitza eta zure saindutasunezko Izpirituaren laguntza igorri dauzkiguzu, zure misterio miresgarriaren argitzeko. Emaguzu aitor dezagun egiazko sinestea : Jainko bat, Aita, Seme eta Izpiritu Saindu, gizaldi eta gizaldietan.

1. Irak. – Jainkoa bestelakoa da. Hau da Jainkoaren handitasunari egina zaion kantua.

2. Irak.– Fedean dagoena, bakean doa, esperantzan berme, leial. Jainkoak bere maitasunean dauka.

Berriona – Giristinoa Jainkoaren maitasunezko trinitatean (hirutasunean) sartzen da.

F.o. – Haurrideak, zuzen diezazkogun gure otoitzak maite gaituen eta salbamenera deitzen gaituen Jainkoari.

1 / Eliza osoaren alde, giristino guzien batasunaren alde, Jainkoak batera gaitzan bera bat den bezala. E.d.o.

2 / Jainko bakar batean sinesten duten eta Abrahamen seme diren judu eta musulmanoen alde, gure otoitz bera doakiola Jainko hiru aldiz sainduari. E.d.o.

3 / Apez eta seroren alde, Izpiritu Sainduari idekia egonik, Kristori jarraikiz, Jainkoa bila eta maita dezaten, Eliza osoaren onerako. E.d.o.

4 / Doluan diren familien eta biziaren azkenetan direnen alde, Jainkoaren hitzan eta haren sinesteen baitan aurki dezaten kontsolamendu. E.d.o.

* - Eskerrak zuri, zeruko Aita, ona zirelako eta Jesus Kristo baitan agertu duzulako zure maitasuna. Igor zure Izpiritua, gure bizi osoa esker-onezko otoitz bilaka dadin.

E.g.o. - Zoriontsu gira, Aita, zerbitzatzen zaitugulakotz eta ogi eta arno hauek ekartzen dauzkizugulakotz gure sinesteen seinale. Denak zu ganik dauzkagu eta zuri doazkitzu. Dohain etxekoi hauek benedikazkitzu, zure Izpirituak har ditzan gure bizi osoarekin batera, gu ere sar gaitezen Jesus Kristoren betiereko Baskoan, gizaldi eta .

Kom. – "Zuek ere atsegabeen zirezte orai, bainan berriz ikusiko zaituztet, eta bozkariatuko zirezte, eta zuen bozkarioa nehork ez dautzue kenduko."

A.o. – Otoitz egin diezogun bere ogiaz eta hitzaz bizkortu gaituenari. (...) Arimaren eta gorputzaren salbamena zuk eman sakramendu huntan aurki dezagun, eta gure sinestean erroak egin ditzan Aita, Seme eta Izpiritu Saindu bateratzen dituen maitasun berean, gizaldi eta gizaldietan.

BESTA BERRI C

Has. – Igandero, giristino orori dei bera hedatua zaio : Jainkoak eskaini otorduan elgarrekin parte hartzeko deia. Eskaintzen daukun ogia, bere gorputza eta bere hitzak dira. Betiereko biziaren haziak. Anartean, gu egiten gaitu “Eukaristi” erran nahi baita “esker-on”. Bozkarioz erantzun diezogun. Jesusek berak, azken afarian utzi maitasunezko ospakizun hau barnatik bizi dezagun :

- Jeus Jauna, gurekin betiko bizitzeraino maite izan gaituzu. U.J.

- Kristo, guretzat ogi egin zirena. K.U.

- Jesus Jauna, behartsuen zerbitzuan ikusi nahi gaituzuna. U.J.

Ot. - Gutartera heldu zaigun Jaunari egin diezogun otoitz (...)

Sakramendu miresgarri huntan, zure pasionearen orroitgarria utzi daukuzu.

Emaguzu amodioz ospa dezagun zure gorputzaren eta odolaren misterioa;

zure salbamenduaren fruituak goza ditzagun. JKgJb.

1 Irak. – Melkisedek apez-erregek, ogia eta arnoa eskaintzen dizkio Abrahameri.

Hortan giristinoek ikusten dute Euskaristiaren aintzin-itxura bat.

2 Irak. – Jondoni Paulok kondatzen dauku giristinoen lehenbiziko eta betiko ohidura sakratua: ogiaren eta odolaren sakramendua...

Berriona – Jainkoa hain da emankorra eta nasaia.

F.o. – Gure bihotzak eta kantuak elgarretaturik, otoitzez hurbil gaitezen Jainko Aitaren ondora...

1 / Jauna, Elizari eman diozu Eukaristia ospatzeko eginbidea. Apezpikuak eta apezak zure maitasunaren gosez lehia ditzen giza seme-alaba guzieren onetan. E.d.o.

2 / Jende ostea ase zinuen. Erakuts-azu gaur ere zure oparotasuna,

behartsuen, ahulen eta sofrikariotan direnen alde. E.d.o.

3 / Zatiturik dauden girixtino Eliza guzieren alde.

Altxa daitezen zubiak eraikiko dituzten Elizagizon eta emazteak. E.d.o.

4 / Gutan finkatzen den Jainkoak, aurki gaitzan prest Jaunaren zerbitzuko

eta harek galdatuari leial egoiteko. E.d.o.

* Aita ona, emazkiguzu nasaiki zure bakearen eta maitasunaren dohainak, zu,

Jesusekin eta Izpiritu Sainduaren batasun berean bizi zirena, gizaldi eta gizaldi guz.

E.g.o. – Benedika zaitzagun, Aita zerukoa, gure eskuek bildu eta bateratu ogi-bihiak eta mahats pikorrak onarturik. Emaiozu zure Elizari bakea,

eukaristia hunek seinalatzen duen batasun eta maitasunean, JKgJb.

Kom. – “Jesusek, bost ogiak eta bi arrainak hartu eta benedikatu zituen, zatitu eta dizipulueri emaiten ziozkaten...

Asetzeraino jan zuten, eta ondarrak bildu ziren : hamabi zaretara.”

A.o. – Otoitz egin dezagun oraino...

Aintza eta ospe zuri Jauna, eman daukuzun Eukaristiaren dohain hunen gatik.

Emaguzu zure bozkarioan sartzeko gutizia. Ogi eta Arno hauetan parte hartzean,

jadanik betiereko zorionaren jasta eman daukuzularik, orain eta menderen mendetan.

URTEKO 12. IGANDEA C

Has. - Anaia-arrebak, denak Jainko beraren seme-alabak gira. Jainkoak libre egiten gaitu. Erantzuna emaitako libre. Behin eta berriz, galdera bat egiten dauku :“Eta zuek nor naizela diozue?” Hau ez da tranpa bat. Jauna gure egiazko errepostu baten beha dago, bakoitzak bere manerakoa. Behin eta berriz dei egiten dauku, :“Jarraik nerri!” diolarik. Hurbil gaitezen Jesusi haren barkamenduaz segur girelako :

- Jesus Jauna, Bihotz urratuen salbatzera igorria. U.J.

- Kristo, Bekatoroseri dei egitera etorria. K.U.

- Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, aitaren eskuin aldean zaituguna. U.J.

Ot. – Konfiantzak gidatzen du Jainkoari doakion gure otoitza. (...)

Jainko guziz ona, zure seme bakarra eman daukuzu. Egizu, gu, zure haurrak, maitasunean bizi gaitezen, “Aita” izena, miresmenez errepikatzen dugula. JKgJb.

1.Irak. – Hobengabearen sofrikarioa... Huna, jadanik Testamendu Zaharretik, Jesusen pasionearen oihartzuna...

2 Irak. – Giristino izanez geroz, soinekoz bezala Jesusez jantziak gira.

Berriona – Jesus berriz ikusten dugu pasionearen et piztearen bidean.

F.o. - “...Eta zuek nor naizela diozue ?” Ihardets dezagun, Jaunari, konfiantza osoz, egiten diogun otoitz hunekin :

1 / Euskal Herriko eliza guziaren alde, Elizaburu eta Elizarduradunek biharko Eliza eraiki dezaten, leial jarraikiz ebanjelioaren bideari. E.d.o.

2 / Sinestea nekez bizi dutenentzat, duda-mudek errautsirik, sinestetik baztertzen diren giristinoen alde. Jesusi jarraikitze bidea aurki dezaten. E.d.o.

3 / Kurutze bidea sofritzen duten herritarrentzat.

Girixtinoek beren inguruan dituzten atsegabeen soleitzeko urratsak egin ditzaten.

4 / Gutarteko bakoitzaren alde, gutarik ttipienak, den mendreenak, baztertuenak Jesusen aurpegia duelakotz. E.d.o.

Ot. – Jauna, gure gidari bakarra zaitugu, egiazko bizia zu-ganik daukagu, emaguzu gutarik bakoitzari zure maitasunaren jastatzeko grazia eta bozkarioa, zu errege bizi baitzira zure Seme Jesus Kristo eta Izpiritu Sanduarekin batean, menderen mendetan.

E.g.o. – Gizakien lanaren fruitu hauk onar-zkitzu, Jauna, zure barkamenaren eta aintzaren ospatzeko. Gure bihotzek, zure graziak garbiturik, maitasunaren deiari erantzun diezoten. JKgJb.

Kom. – “Nere ondotik etorri nahi duenak, uko egin bezo bere buruari. Har beza egun guziz bere kurutzea eta jarraik bekit.”

A.o. – Aintza zuri, Aita guziz ona. Zure gorputzaren eta odolaren bidez piztu gaituzu. Zure bihotz onari dei egiten diogu, behin betiko salbaturik, Eukaristia huntan bizi duguna zure erresuman bizi dezagun. JKgJb.

URTEKO 13. IGANDEA C

Has. – Haurrideak, Jainkoa ez dugu ikusi, ez ikusten. Alta, haren baitan sinesten dugu, haren lekukoek eta haren hitzaren graziak laguntzen gaituelako. Badakigu bere bizia eman daukula. Jainkoren maitasunak Jesusen bidea hartzera deitzen gaitu. Maitasunaren bide hori zorrotz eta garrantza delako, laguntza galda diezogun.

- Jesus Jauna, gaitz guzietarik libratzen gaituzuna. U. J.

- Kristo, zure izenean bakea mezutzera igortzen gaituzuna. K.U.

- Jesus Jauna, elgar maitatzeko manamendua eman daukuzuna. U.J.

Ot. – Maitasun eta argi den Aitari egin diezogun otoitz. (...)

Zure graziak egin gaitu argiaren seme. Egizu ez gaitezen ilun-bideetan gal.

Emaguzu, Jesusi jarraikiz, haren argiaren ekarle izan gaitezen,

Hura errege bizi dena zurekin eta Izpiritu Sainduarekin, menderen mendetan.

1. irak. – Profetak Izraelgo populuari iragartzen dion mezua baikorra da.

Hondamendia iragan-eta bake egunak biziko ditu.

2. irak. – Jesusek igortzen daukun Izpiritua, Izpiritu libratzailea da.

Gure bizia Jainkoaren eskuetan ezartzea, horra non den gure libertatea.

Berriona – Jesusi jarraikitze bidean eman behar gira.

Erran nahi baita lotura zaharretarik libratu.

F.o. – Jainkoaren mezulari bilakatu behar girela, bai, bainan lehenik lot gaiten otoitzari.

1 / Jainkoaren mezua zabaltzeko egizu, altxa daitezen zure Elizan, tolerantzia-zubi eta bake-bide egileak. E.d.o.

2 / Jainkoak bere zerbitzura deitu dituenentzat.

Jaunaren Izpirituak ez ditzan herabe eta dudakor utz. E.d.o.

3 / Eliza elkarteetako gazteentzat,

Jaunaren deiak haien bihotzetan izan dezan oihartzun. E.d.o.

4 / Kanbiamenduek, berrikuntzek durduzaturik uzten dituztenentzat

eta gu denentzat, osoki fida gakizkion Kristoren Izpirituari. E.d.o.

* Jauna, emozute laguntza gizaki guzietari, ez diten galbideetan errebela, ez eta beren buruaren amodioan gehiegi fida, bainan bai zure Izpirituaren argian.

JKgJb.

E.g.o. – Jauna, gure ahulezia ezagutzen duzu bainan zure sakramenduen indarrez zutik atxikitzen gaituzu. Egizu hemen bildua den populua izan dadin zure dohain sainduen errezebitzeko gai, zure aintzaren goresteko orain eta menderen mendetan.

Kom. – “Goldeari lotu ondoan gibelerat behatzen duena

Jainkoaren erresumarako ez da on.”

A.o. – Aintza zuri, Aita guziz ona, eta komunionean hartu gorputzak bizi eman diezagula. Pasatuko ez den maitasun sendoak fruitu iraunkorrek ekar ditzala gu baitan. JKgJb.

URTEKO 14. IGANDEA C

Has. – Haurrideak, Ongi etorri eskuz egina den eliza huntan, Jainkoaren etxe huntan. Hemen dugu aurkitzen bake eta indar. Mezatik landa, Jesusek kanpokoan ganat bidaltzen gaitu, haren maitasunaren argia hel dakioten. Ardiak otsoen erdira bezala igortzen gaitu, baina Jainkoa gurekin dugu...

Jainkoa baitan segur gira aurkituko dugula konfiantza eta barkamendu :

- Jesus Jauna, bekatorosari bakea eta barkamena eskaintzen duzuna. U.J.

- Kristo, Jainkoa bilatzen dutenen bide zirena. K.U.

- Jesus Jauna, zure haurren hazkurri egin zirena. U.J.

Ot. – Gure Jainkoa, bakearen Jainkoa da. Fidantziak egin diezogun otoitz...

Aita guziz ona, zure maitasunak sortu gaitu eta zure Semea apalduz mundua goratu duzu. Zure jarraitzaileeri emozute bozkario saildu bat, libra-zkitzu bekatuaren kateetarik, betiko zorionean sar daitezten. Zuri goresmenak, maitasun ziren Jainkoa, orain eta menderen mendetan.

1. Irak. – Jainkoa gurekin dugu. Amak haurra bezala zaintzen gaitu.

2. Irak. – Jondoni Paulorentzat balio duena kreatura berri izaitea da.

Jesus Kristo baitan dauka bere bozkario guzia.

Beriona – Jesusek 72 dizipulu igortzen ditu mezulari. Bozkarioz itzuli ziren denak !!

F.o. – Jaunak entzuten du gure otoitza, Jesusen bitartez doakiolako...

1/ Apez berri eta apez gaien alde, Jainkoak bere maitasunean leial atxik ditzan.

E.d.o.

2 / Bataiatu eta konfirmatu berrien alde, Jesusen baitan aurki dezaten ausartzia eta konfidantza. e.d.o.

3 / Katixima egile eta omoniergoetan ari direnen alde, girixtino bizian, esperantza sendo batek bultzatzen. E.d.o.

4/ Borondate oneko giren giza seme-alaba guziren alde, egunero bete-beharretan ebanjelioaren pozak sustenga gaitzan. E.d.o.

* Bai, Jainko gure Jauna, maite gaituzu eta gure bihotzak maitatzeko gai egiten dituzte. Ager-aguzu zure maitasun samurra, aldeko lagunak zerbitzatuz zu ere zerbitza zaitzagun. JKgJb.

E.g.o. – Jauna, aldare gainera ekarri ditugu ogi eta arno hauk, Jesusen maitasunaren seinale bilakatuko dira. Eskaintza hunen bertutez, eraman gaitzazu, urratsez urrats zure erreinura, zure aintzaren goresteko orain eta menderen mendetan.

Kom. – “Uzta nasaia da, baina langile guti. Otoitz zazue, bada, uztaren jabea, langileak igor ditzan bere uztarat.” Dio Jesusek.

A.o. – Otoitz egin dezagun oraino...

Jauna, uztaren nagusia, eskerrak bihurtzen dauzkitzugu

esker onezko otoitz huntan parte hartzeko grazia eman daukuzulako.

Horra igortzen gaituzula zure erreinuaren alde lan egitera.

Urrats egizu gurekin, denak hel gaitezen zure betiereko zorionera. JKgJb.

15. IGANDEA C

Has. – Haurrideak, gure Jainkoa ez da zero gainetan bizi bainan gure bihotzbihotzean eta gutartean. Sinesleari hainbeste ezaugarrik erakusten diote Jainkoa eguneroko bideetan gurekin dabilala. Haren izenean, eliza huntan biltzen girelarik gure artean hurbil daukagu. Ongi etorria egin diezogun, baketurik eta biziberriturik joan gaitezen gu ere gure haurrideen ganat.

- Jesus Jauna, Aitaren maitasunaren, adierazterat etorria. U.J.

- Jesu Kristo, Aitaren hitza, deneri ezagutzerat emana. K.U.

- Jesus Jauna, Aitaren bakea, bekatoros guziera eskainia. U.J.

Ot. – Jaunaren aintzinean bilduki otoitz egin dezagun...

Benedikatua izan zaite, Jainko gure Aita, zure Hitzak zuhurtziarekin gidatzen gaituelako. zure Hitzak ager diezagula zure nahia. Indar eman diezagula Jainkoa bihotzez eta gure aldeko lagunak guhaur bezala maitatzeko. Zure seme Jesus Kristo, gure Salbatzailearen bitartez, harek gaituelako, Izpiritu Sainduaren laguntzarekin, zugarat helarazten, gizaldi eta gizaldietan.

1. Ir. – Nun bila Jainkoa, ez hain urrun ! Haren Hitzetan, gure ondoan

2. Ir. – Kristok izadi guzia bere baitan biltzen du. Lehena eta azkena, dena da.

Berriona – Samaritano ona Jainkoa bera da, imitatu behar dugun gizona ere.

F.o. - Gure aldeko lagunaren samaritano izan gaitezen, haien otoitzak Jainko aitari helaraziz.

– Jaunaren hitzaren zabaltzeko kargua dutenentzat. Ausardia eta indar eta eztitasunukin bete dezaten beren misionea. Ed.o.

- Jaunak begira ditzan biziak zauritu dituen gure haurrideak... Ogiz eta maitasunez gose direnentzat. Ed.o.

- Bake bilatzaile eta egileentzat. Jauna hurbil izan dakioten...E.d.o.

- Eguner kurutzatzen girenentzat. Jaunak maitan gaitzan gu elgar maite giren bezala. Gure baitan ezar dezan bere maitasunaren indarra. E.d.o.

* Entzun-zazu zure populuaren deia. Izan zaite gutarik bakoitzari hurbil. Emaguzu indar gure arteko maitasunari. JKgJb

E.g.o. Huna, Jauna, gure Euskariztiaren ogia eta arnoa. Eskaintza hunek, egunez egun, gida gaitzala zure seme Jesu Kristoren bitartez betiereko aintzara, gizaldi eta gizaldi guzietan.

Kom. – « Ni jaten nauenak, neri esker izanen du bizia. Hau da zerutik jautsi ogia. Huntarik jaten duenak betiereko bizia izanen du.

A.O. - Jain,ko bizi emailea, biziaren ogia eman daukuzu, gu zure adizkide egiteko. Bekatutik salba gaitzazu. Indarb erriturik zure betiereko erresuman sartzeko grazia arditst dezagun, JKGB

16. IGANDEA C

Has. - Jaunaren hitzari gure gogo-bihotzak zabalik, ongi etorria egiten diotegu gure aldeko lagun guzieren, bakoitza den bezalakoari. Eukariztia hau hasterakoan Jaunari gaude, behartsuen bihotzarekin, umil eta barkamendu eske baitakigu haren graziak gaituela indar-berrituko eta salbatuko. Jauna sartzen da gure baitan bihotza idekitzen diogun araberan....

- Jesus Jauna, Aitaren hitza, gorputz egina gure salbatzeko U. J.

- Jesu Kristo, Aitaren mahainerat gomitatzen gaituena. K.U.

- Jesus Jauna, Aitarren aintzarat altxatua, gure zorionerako. U.J.

Ot. – Konfiantzak bultzaturik, itzul gaiten gure Jainko Aitari buruz (...)

Jauna, jarraitzen zauzkitzueri emozute nasaiki zure graziaren dohaina.

Esperantzan, karitatean eta sinestean sustenga-zkitzu ; zure hitzari erne eta zure manamendueri leial egon dituen. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunarekin eta Ipiritu Izipiritu batean Errege bizi baitzira orain eta menderen mendetan.

1. Ir. – Abraham «Fededunen Aita » deitua izan da. Jainkoaren mezularieri ongi etorria egin ziotelako. Haien egin konfiantza osoaren sari Jainkoak ondorio emankorra

2. Ir. – Jainkoaren misterioa ez da ezin ulertuzkoa, baina Haren maitasunaren ulermena. Jondoni Paulo, edozein girixtino bezala, lehiatzen da, nekatzen da eta besteen zerbitzuan bozkariatzen da.

Berriona – Parterik hoberena, nehork ken ez dezagukeena, Jainkoaren hitza entzutea eta obratzea.

F.O. – Gure baitan bihotza umil daukagula, otoitz hau Jainko gure Aitari doakiola munduko haurride guzieren izenean.

- Elizarentzat. Jaunaren izenean, lehia dadin gizon guzieren bere etxean ongi-etorria egiten bai eta Jaunaren hitzaren zabaltzen...E.d.o.

- Ixtripuetan kolpatuak, bakardadean utziak, eritasunak eta adinak ezindurik duzkatena ...Ongi etorria egiten dioten girixtinoak altxa ditezen... E.d.o.

- Beren baitarik, borondate onez, elkarteetan edo bakarrik beharduneri laguntza emaiten dioten guzientzat... E.d.o.

- Hemen bezala, igandez, elizetan biltzen diren fededun guzientzat, Jaunaren hitzari idekiak eta beren aldeko lagun guzieren kasu emanak izan dituen... E.d.o.

* Egon zaite, Jauna, beharduneri eta zure jarraitzaileeri hurbil.Egizu bilaka gaiten zure hitzari erne et zure manamendueri leial. JKgJb.

E.g.o. - Jainko gure Jauna, begitarte on egin diozute Abelen eskaintzari bezala Abrahamen ongi-etorriari. Onar ezazu zure sinesdunen eskaintza hau, bakoitzaren emaitzak lauda zaitzala eta salba gaitzala, Jesu Kristo gure Jaunaren nahiaren arabera, hunekin eta Izipiritu Sainduarekin bat errege bizi baitzira mender. mendetan.

A.o. – Jaunak bere maitasunean bisita egin dauku, elgarrekin otoitz egin diezogun... Jainko bizi emailea, biziaren ogia eman daukuzu, gu zure adiskide egiteko; bekatutik sal-ba gaitzazu, idar-berriturik, betiereko erresuman sartzeko grazia ardiets dezagun.JK.

17. IGANDEA C

Has. – Oporraldiak denbora egokiak gertatzen dira otoitzaldientzat. Igandea da bereziki otoitzaren eguna. Igande huntan begi-beharrietan izanen ditugu Abraham eta Jesus, otoitzean. Gu ere haien otoitzari juntatzen gira, munduko girixtino hazurride guziekin bat, konfiantza osoz; gure Aita zerukoa gure beha baitago, burrasoak beren haurreri bezala...

- Jesus Jauna, saildu izan bedi zure izena. U.J.

- Jesus Kristo, egin bedi zure nahia. K.U.

- Jesus Jauna, barkatu gure zorrak. U.J.

Ot. – Jaunari egiten diogun otoitz huntan bihotzez bat egin gaitezen...

Jauna, otoitz egiten dutenak ordaintzen dituzu et zure baitan fidatzen girenak zaintzen gaituzu. Zu gabe ez daukagu ez indarririk, ez saindutasunik; Barkamenduzko jestuak nasaiki egizkiguzu, zuk gidaturik, ontasun iraunkorreri atxikiak izan gaitezen. JKgJb.

1. Ir. – Abrahamek tratu bat egin zuen Jainkoa ezitzeko. Jainkoak hobengabeak eta hobendunak ez ditu berdin entzuten. Bai, hobengabe bakar bati esker hobendunak salbatzen.

2. Ir. – Bataioaz geroztik, ez gira bakarrik bekatutik barkatuak bainan ere Kristorekin piztuak.

Berriona – « Jauna irakasaguzu otoitz egiten » Hau da Jesusen dizipuluen galdea, hau da ere betidanik gurea.

F.O. – Jesu Kristok erran dauku Jainkoa gure Aita dela : otoitz egin diezogun maitekiro, munduko haurride guzientzat.

1. – Jainko Jauna, bihotz xamurrez maite duzu zure Eliza. Eliza buruentzat, izan diten zeruko Aitaren maitasunaren lekuko : berdin maitatuz girixtinoak, gogo onekoak eta epelak...E.d.o

2 –Jesusek beti otoitz egitea gomendatzen dauku. Mundu sozialean, politikoan, ekonomian eta elkarteetan arduradun direnentzat. Beren lana otoitbilakatzen dutenentzat, Jainkoaren erreinuaren alde. E.d.o...

3 – Guk dugun zeruko Aitarekilakoak harreman konfiantzazkoa da. Etsitzen dutenentzat, otoitzean sinesten ez dutenentzat, otoitz egiteko gustua galdu dutenentzat, Jaunaren seinaleeri idekiak egon ditezen.E.d .o.

4. –Jainkoak guziak bere haur egin gaitu eta « Gure Aita » erraiten irakatsi dauku. Gutarik bakoitza bake eta batasun egile egon edo bilaka dadin.E.d.o.

* Maitasun ziren Jainkoa, begira-zkitzu beren esperantza zutan ezarria duten haurrideak, begi onez har-zkitzu haien eskaera minberenak. JKgJb.

E.g.o. – Jainko guziz ona, huna zure aldare gainean, ogi eta arno doi hauk. Zure esku zabaletik dauzkagu. Itxuraldatuak itzuliko dauzkiguzu, misterio saildu hauek gure bizia saildu egin dezaten eta eraman gaitzaten betiereko zorionera. JKgJb.

A.o. – Jainkoak ogi bizia eman dauku, izan gaiten eskerdun...

Aita guziz ona, zure pasionearen orroigarri hunek bat egin gaitu, dohain hau gure salbamendurako izan dadila, zure maitasun mugagabea, eraman gaitzala betiereko zorionera. JKgJb.

18. IGANDEA C

Has. – Igandero zeruko aitak bere inguran biltzen gaitu. Erne egon gaiten Jaunaren beha, jadanik hor baitugu. Eukariztia hunek eman diezagula zahartzen edo erdoiltzen ez diren ontasunen gutizia. Bizkar eman diezotegun zorion eta ontasun faltsu guzieri.

– Jesus Jauna, hiletarik piztua, gure bideen arintzera igorria. U.J.

– Jesu Kristo, gure haurridea, denen sendatzerat etorri zirena. K.U.

– Jesus Jauna, barkamendu guzieren iturria. U.J.

Ot. – Bilduki, denek batera, otoitz dezagun gure Jainko Jauna...

Aita guzi-ahalduna, ospe eta aintza zuri ; zure haurrak ez dituzu nahi utzi eguneroko gora behearen menpe. Atxik gaitzazu esperantzan atzarririk, Izpiritu Sainduaren deieri erne. Zure Semearen etortzeak ez gaitzan lotsa bainan bozkaria gizaldi eta gizaldi guzietan.

Ir. – Zertako bildu hoinbeste ontasun? Zertako eman bizi oso bat huskeria batzuentzat ?

Ir. – Bataiatuak girenaz geroz zerutiarrak gira. Jesus jantzia soinean eman dugu. Kristo da gure bizia.

Berriona – Izan gaiten Jainkoarentzat aberats. Dirugosea zentzugabekeria da.

F.o. - Jainko Aitaren aintzinean aberatsak izaitera deituak gira. Jesu Kristoren bidez helaraz diezogun gure otoitza...

1. – Elizarentzat. Elizagizonak deituak baitira egiazko ontasunen jakile edo lekuko izaitera ; Jainkoaren ontasunen gustua eman dezaten. E.d.o.

2. – Diru gosez esklabo direnentzat. Jainkoak beren bihotza hunki dezan. Pobrezia hautatu dutenentzat Jainkoa eta beren haurrideak hobeki zerbitzatzeko. E.d.o.

3. – Munduko fededunentzat. Egiazko zoriona Jainkoaren ontasunetan bila dezaten.

4. – Deuseren goserik ez dutenentzat. Mundu huntan deus egitekorik ez dutenentzat. Lanak lehertzen dituenentzat. Denek zuzentasun bideak bila ditzagun. E.d.o.

* Jauna, zure maitasunak gure bihotzetan har dezala leku hoberena. Handi gaitzala gure haurrideen zerbitzuan, mundu huntarik libreago izanez, ikas dezagun zure ontasunen hobeki preziatzen et zure esker ona kanta dezagun orai eta menderen mendetan.

E.g.o. – Jauna, esker-onez, saildu egizkitzu eskaintza hauk. Eukariztia hunen bidez, sinesdunek zure ontasunen gozatzeko grazia izan dezaten.

Gutarik egizu izan gaitezen zure aintzari betiereko eskaintza bat.

Kom.– Jauna emaiten daukuzu zeruko ogia, egiazko hazkurria, gure gutiziak asetzen ditu

A.o. – Jainko gure Aita, emaguzu geriza, zeruko ogiaren bitartez, bihotz-berritu gaituzun seme-alaberi. Zure Semeak agertu dauzkigu egiazko ontasunak. Haren eskaintzarekin bat egiteak eman diezagula Izpiritu Sainduaren gutizia. Orduan bozkarioz hedatuko dugu zure bihotz onaren berri ona. Zu baitzira betiereko graziaren iturri, gizaldi eta gizaldietan.

19. igandea C

Has. – Gutarik askorentzat, ilabete hau oporren ilabetea dugu. Batzuek hasten, besteek segitzen, beste batzuek bururutzen. Eta gainerateko hainbestek deus ez hartzen. Bainan noiz nahi, bisita baten beha gaude. Gutarik beste batetarako bide laburrena, ederreana, ez ote da maitasunaren bidea ? Non ere baita maitasuna, Jainkoa han da. Euskariztia huntan bizi dezagun Jainkoaren maitasuna.

Jesus Jauna, zure populua zure hitzaz gose dago. U.K.

Jesu Kristo, zure populua, zure maitasunaz egarri dago. K.U.

Jesus Jauna, zure populua zuk hats berritzeaz berantetsia dago. U.J.

Ot. – Jaunari hurbil, konfiantzaz elkarturik, egin diezogun otoitz...

Jauna, otoitz egiten dautzugun haurrideeri erakuts-aguzu zure maitasun mugagabea.

Burgoi gaude, Zu, sortzaile eta probidentzi zaitugulakotz. Berri ezazu eta zain zuk sortu mundu hau. JKgJb.

1. Ir. – Behargabe guzien gainetik, ontasun guzien gainetik, badakigu nortan fida : JK baitan.

2. Ir. – Orroitaraz dezagun bataioan jauntzi xuri bat soinean eman ginuela: JesuKrist

Berriona– Lur huntako ontasun guzien gainetik, ontasun bat eta bera dugu: Jesu Kristo

F.o. – Gizonaren balioa ez dute ontasunek egiten. Egiazko ontasunak gure Jainko aitari galda diezazkogun.

1. – Gure bihotzak idek ditzen Jaunaren hitzaren zuhurtziari, elkor eta itsuago izan gaiten ontasun faltsueri...E.d.o.

2. – Eliza-gizonak leial egon ditzen Jesusen funtsezko mezuaren hedatzeari... E.d.o.

3. – Egiazko ontsunez gose direnentzat, eta goserik ez dutenentzat...E.d.o.

4. – Beren hoberenetik ematen dutenentzat, ohartu gabe emanez aberasten direnentzat Jesu kristo bizizitzen dutelako...E.d.o.

* Gure haurrideeri, esku zabalez emozute zure dohainetarik, zure erreinua gure bihotzetan heda dadin, zure ospea kanta dezagun, menderen mendetan. JKgJb.

E.g.o. – Onbera ziren Jauna, saildu egizkitzu emaitzak hauk.

Onarrazu Eukariztia hunen sakrifizio espirituala

Gu, egin gaitzazu zure betiereko loriaren eskaintza. JKgJb.

Kom. – (Jn 6,35) « Ni naiz bizia emaiten duen ogia, nereganat datorrena ez da gosetuko eta nere baitan sinesten duena ez da sekula egarrituko. »

A.o. – Otoitz egin dezagun oraino...

Gure aita eta gure Sortzailea zira, zeruko ogi bizia hartu dugun guziak atxik gaitzazu zure hegalean ; behin eta berriz solegitzen gaituzula eta zure betiereko erresumako haur biziko girela. JKgJb.

ANDREDENA MARIAREN ZERURATZEA

Has. – Egun, Elizaren seme-alabek, mundu guzian, ospatzen dugu Mariaren zerurat altxatzea : Gure munduarentzat poza eta seinale miresgarri bat bezala zeruetan : gizonaren bizia ez da errautsetan bururutzen. Jesu Kristok heriotza, azken etsaia, garaitua da. Jesusen ondoan dagon Mariari galda diezogun egin gaitzan sinestearen bidean beilari, Jesusen hitzetan fidatuz...

- Jesus Jauna, zure ama egin duzu gure pozaren iturburu. U.J.

- Jesu Kristo, zure ama egin duzu zure graziaren ekintzarik ederrena. K.U.

- Jesus Juana, zure ama egin duzu Izpiritu Sainduaren jauregia. U.J.

Ot. – Itzul gaiten Maria Elizaren modeloari buruz...

Jauna, zure indarraren eta bihotz onaren bertutez, zure Elizari eman diozu Maria Birjinaren miresteko grazia. Egizu, lur huntan beilari doan zure populuari, begiak atxik ditzan Mariari begira, Jesus hobeki jarraikitzeke, haurride guziak hel gaiten, Maria bezala, ospearen betetasunera. Otoizten zaitugu Jesu Kristo gure Jauna, zure Semearen bitartez.

1. Ir. – Emaztea ikusten dugu haur-minetan. Eliza da eguneroko lanetan. Kontrako indarrek garai ez dezaketen Eliza.

2. Ir. – Mariaren zerurat igaiteak seinalatzen du Jesusen gorputz giren bataiatu guzien bidea.

Berriona – Mariaren kantika entzuten dugu. Zoriontsua jaunaren hitzetan fidatu dena.

F.o. – Maria Birjinaren bitartez, Jesus piztuari otoitz egin diezogun, behardunenak gogoan ditugula.

– Elizarentzat, gure munduko « dragoi » modernoek mehatxatua (ezazolkeria, epeltasuna...) Elizaren baitan « bai » erraiten dutenak altxa diten beldur gabe, geroago eta gehiago. E.d.o.

– Doluan diren falmilientzat, eta zendu direnentzat, berpiztearen esperantzian daudela.E.

– Emazteentzat, munduan zehar bere duintasun osora altxatuak izan dadin eta bere izaitean errespetatua...E.d.o.

– Jaunak bete eskuak hutsik dituztenak, apalak altxa ditzala. Jauna orroit dadin bere barkamenduaz...E.d.o.

. * Jauna, egun, Mariaren bitartez, zuri doazkitzu gure otoitzak. Entzun-zkitzu geldi gabe behartsuen alde helarazten daukitzuzugun egungo deiak, Zuk, Jauna, Jesu Kritorekin eta Izpiritu Sainduarekin maite gaituzulako, menderen mendetan.

E.g.o. – Jauna zuk goraltxatzen dituzu apalak eta eskuak hutsik igortzen aberatsak. Gure emaitzen beharretan eman zira. Emaiguzu bihotz umil bat, Mariarekin batean lauda zaitzagun eta eskerrak eman, JKgJb.

A.o. – Berriz ere Jaunari doakio gure otoitza...

Jauna, eskerrak zuri salbamenduaren sakramendu hunentzat. Hunen bitartez zure hitza gure baitaratu dugu. Emaguzu zeruetarat altxatua den Mariaren bitartez hel gaiten piztearen osperat. JKgJb.

21. IGANDEA C

Has. – Jainkoa dugu biltzaile, kontsolatzaile eta bozkario emaile. Denbora berean urrunago, gorago deitzen gaitu eta hortarako esku emaiten dauku. Bideak hertsia dira. Eta gainera, Jaunaren bideak ez dira gureak. Berdin, gutarik azkenak Jainkoaren erresuman lehenak izanen dira.

- Jesus Jauna, zure populuaren salbatzera etorri zirena. U.J.
- Jesu Kristo, Jainkoaren erresumako ate zirena, K.U.
- Jesus Jauna, zeruko argia, gizonen bidearen argitzera etorria. U.J.

Ot. Huna zeruko Aitari bere haurren otoitza ...

Jauna, gure Aita deitzen ahal zaituguna, handi zazu gu baitan aitarekilako maitasuna, gai izan gaitezen, egun batez zuk hitzeman ondarean parte hartzeko. JKgJb.

1. Ir. – Jainkoak dauzkigu bideak idekitzen, populuak batasun bidean ezartzen...

2. Ir. – Zentzu onera etorri behar gira. Eta zentzaldiak beharrezkoak dira dio Jondoni Paulok.

Berriona – Ate hertsitik sartzera deituak gira.

F.o. – Jaunari galda diezogun funtsezko zoriona denari emana izan dakion.

1. – Lehenak azkenak izanen dira. Podere zati bat duten guzientzat, beren kargua zerbitzu baten gisa bizi dezaten. E.d.o.

2. – Jainkoaren erresuma ttipieri idekia da. Sofrikariotan direneri, beren bihotzaren ixillean, Jaunak erakuts dezoten bere bihotz ona. E.d.o.

3. – Gure biziaren bide eta ate da Jauna. Gure maitasuna berma dezan, bultza gure esperantza eta sendo gure sinestea. E.d.o.

4. – Ebanjelioak inharrosten gaitu. Jaunaren hitzaren hedatzaileak zintzoak gutartean altxa dituen. E.d.o.

* Jauna, esperantza zutan emana dugu. Onets-zkitzu gure otoitzak. Benedikatua izan zaite horrenbeste dohaintzat, zu Aitarekin eta Izpiritu Sainduarekin bat bizi zirena, orai eta menderen mendetan.

E.g.o. – Jaun guziz ona, ogia eta arnoarekin guhaur, zure haurrak, heldu gaituzu Jauna emaitzak hauk zuk emanak dazkotzu zure Elizari, gero zuri eskain ditzan, eta guretzat bilaka dituen salbamenduaren sakramendu, bihotz onez onar-zkitzu, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Kom. – « ...Eta nik emanen dutan ogia nere gorputza da, mundua bizi dadin emana. »

A.o. – Jauna zure sakramenduan komuniatu dugunaz geroz, libra gaitzazu, gure erroak zure egian barna egin ditzagun. JKgJb.

22. IGANDEA C

Has. – Mahain beraren inguruan jatea, jatera gomitatzea, jatera gomitatua izaitea, otorduak familian hartzea atsegin xinpleak eta funtsezkoak ditugu. Bakardadea da jasan gaitza. Igandez, girixtinoak Jesusen aipurat gomitatuak gira, eukariztiaren inguruan batasun bat osatzen dugula. Bozkario berarekin hurbil gaiten apairu huntara eta gure bozkarioa besteeri helaraz.

- Jesus Jauna, pobre sortua eta pobreen esperantza, U.J.

- Jesu Kristo, gizonen bideko argia, K.U.

- Jesus Jauna, betiereko Jainko bizidunaren semea. U.J.

Ot. – Zeruko Aitari doakiola gure otoitza...

Dohain guzien iturri ziren Jauna, zure izenaren maitasunak erroak egin ditzala gure bihotzetan ; lokarri tinkoak sor ditzala, gu baitan dagon ongia handi dadin. Amultsuki begira gaitzazu, zu, Jesus zure Semearekin eta Izpiritu Sainduarekin, menderen mendetan benedikatua ziren Jauna.

1. Ir. – Jaunak apaleri agertzen dizkiote bere misterioak.

2. Ir. – Euskariztian ez gira bakarrik gutartean, bainan mundu zabaleko eta zeruko partaide guzien batasunean.

Berriona – Zeruko erresuma idekia zaiote humileri eta esku zabalekoeri.

F.o. – Apaltasunez eta konfiantzaz, gure zeruko Aitari idekitzen gatzαιο.

1– Egiaren Jainkoa otoizten dugu, ebanjelioa hedatzen duten guzientzat.

- Jauna, emozute indarra eta bakea.

2– Zuzentasunaren Jainkoa otoizten dugu munduko « handientzat ». Ahulen defentsa dutelako lehen eginbidea. - Jauna, emozute indarra eta bakea.

3 – Jaun amultsua otoizten dugu eri eta adin handikoentzat, eta hauen artatzaileentzat. - Jauna, emozute indarra eta bakea.

4 – Jainko onari eskerdun gaude apairu hunentzat eta bozkariatzen gira gure aldeko lagunen zerbitzuan. – Jauna, emaguzu zure indarra eta bakea.

* Jainko gure Aita, Jesu Kristo goraltxatu duzu, guretzat apaldu delarik, egizu bizi dezagun apaltasun bera gure hurbileko guzien zerbitzuan. Zu bizi baitzira, zure seme Jesu Kristorekin eta Izpiritu Sainduarekin, orai eta menderen mendetan.

E.g.o. – Eukariztiaren eskaintza hunek, ekar diezagula salbamenduaren grazia. Zure indarrak obra dezala liturgia huntan ospatzen dugun misterioa. JKgJb.

A.o. – Jainkoa bera zaigu emana, haren semea emanez, otoitz dezagun ...

Batasunaren sakramenduan komuniatu dugu. Erakuts-aguzu Jesu Kristoren iduriko izaiten, bihotzez apal eta gozo, haren zeruko lorian parte har dezagun, han errege bizi baita zurekin eta Izpiritu Sainduarekin, menderen mendetan.

23. IGANDEA C

Has. – Biziaren zirrimola etengabeak berekin eramanez ote gaitu ? Igande huntan, har dezagun atsedenaldi bat eta begira diezogun datorren lan-urte berri honi. Eman diezogun denborari denbora, otoitzari denbora. Ordu da Jaunaren hitzaren entzuteko. Beti ordu da ere besteen zerbitzurako... Ez gira ez denboraren, ez nehoren esklabo.. .

- Jesus Jauna, zailak zauzkigu zure hitzak. U.J.

- Jesu Kristo, zure argi eta indarren beharretan gaude. K.U.

- Jesus Jauna, emaguzu zure maitasunaren sua. U.J.

Ot. – Zure Semea igorri duzu gure salbatzeko eta gu zure besotako haur egiteko. Aita baten begi amultsuekin begia gaitzazu. Jesu Kristo baitan sinesten dugunaz geroz, emaguzu egiazko libertatearekin, betiereko bizia. JKgJb.

1. Ir. – Jaunak moldatu gintuen, haren esku utz dezagun gure izaite guzia.

2. Ir. – Paulok, bera kartzelan dagola, Filemon nagusiari galdatzen dio libra dezan Onesimo esklabo.

Berriona – Gureak ditugun mundutar ontasuneri uko egin behar diotegu Jesusi jarraikitzeke.

F.o. – Ebanjelioak behin eta berriz errepikatzen dauku girixtino biziaren zorrotasuna : Bakoitzak bere kurutzea hartu eta Jesusen ondotik joan beharra, barne barnetik esperantza bizkor eta maitasun egarri batek bizi gaituelarik.

– Bataiatu guzientzat, Jaunaren dei ozena entzun dezaten, mundu hunen erditik. E.d.o.

– Irakasle eta ikasle guzientzat, elgarrekin aurki eta bizi ditzaten jakintzaren bide berriak. Oraindanik geroa eraiki dezaten bakean eta elgarren errespetuan. E.d.o.

– Hersturetan beren kurutzea deramatenentzat, bihotz oneko girixtino zintzoak bidean aurki ditzaten. E.d.o.

– Katixima egileentzat, Jaunak eman diezoten argi, indar eta su beren misionearen betetzeko, Elizaren eta girixtino guzien izenean. E.d.o.

* Jaunaren erresuma, zure Izpirituak dauku moldatzen gure gogo-muinetan. Emaguzu gogo oneko gizon guzietan, zure sinestearen bozkarioa, eta egunero zure maitasuna bizitzeko grazia. Zu, zure seme Jesu Kristorekin eta Izpiritu Sainduarekin bizi zirena, orain eta menderen mendetan.

E.g.o. - Jauna, zuri eker dugu bakea bilatzen eta zuzenki gira bizitzen. Egizu eskaintza hauen bertutez goraiatua izan zaitez, eta Eukariztian parte hartu dugunaz geroz gure batasunaren lokarriak sendoago bilaka ditez. JKgJb.

Kom. – « ...Ni naiz munduarentzat argia. Jarraikitzen zaitana ez da ilunpean ibiliko, bizia emaiten duen argia ukanen du. »

A.o. – Jainkoari eskerdun gaudela, oraino dezagun otoitz egin...

Jauna, zure jarraitzaileeri emaiten diozute hitzaren eta ogiaren indarra. Egizu zure dohainak probetxugarri izan zakizkigun et zure Semearen biziari loturik egon gaitezen hura bera errege bizi baita, zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean, menderen mendetan.

24. IGANDEA C

Has. – Egungo irakurketen harian, gure salbamenaren historia irakurtzen dugu... Horra populu bat zutik emaiten bere salbamendurako. Horra bitartekari bat populuaren izenean altxatzen. Horra Jainkoak bitartekaria entzuten. Paulo, girixtinoen hertsatzaile amorratua, Kristoren dizipulu bilakatu da, Jainkoak hunkiturik. Aita bat bere seme galduaren beha dagola, horra berdin gure Jainko Aita bere haurren beha. Jainko luzakorra bainan ez ahanzkorra... Maitasun emaile. Batasun egile. Bizi-berritzaile...

- Jesus Jauna, ardi galduen bila etorria. U.J.
- Jesu Kristo, eri direnen sendatzera etorria. K.U.
- Jesus Jauna, bekatuan direnen salbatzerat igorria. U.J.

Ot. – Otoitz dezagun barkemendu den Jainkoa...

Jauna, entzun-zazu zure haurren otoitza. Entzun-zkitzu bekatoros direla aitortzen dutelarik. Gure bekaturen barkamenarekin emaguzu zure bakea eta bozkarioaren grazia, JKgJb.

1. Ir. – Jainkoak bere hasarrea ezitzen du, Moises, bitartekariaren otoitzari esker.

2. Ir. – Huna Jondoni Paulo eskerdun, Jainkoak fidagarri aurkitu duelako.

Berriona – Poza da nagusi, semea, galdua zena bizi baita, barkaturik sartu baita etxen.

F.o. – Urrikalmendua!! Gizonen miseria guzia Jainko Aitak bere bihotzean hartzen du.

Hari dei egitera menturatzen gira orain :

– Urrikalmenduaren ministro diren apezpiku eta apezentzat. Jainkoaren Izpirituak gida ditzan...

– Preso direnentzat, barkamenduan sinesten ez dutenentzat. Jainkoaren Izpirituak libra...

– Bakardea eta bazterketa jasan behar dutenentzat. Jainkoaren Izpirituak sostenga...

– Gure haur eta gazteentzat, barkamenaren bozkarioa ezagun dezaten eta Jainkoaren Izpirituak hunki ditzan...

*Jainko gure Aita, zure Semeak agertu dauku maitasun mugagabea. Zure urrikalmnduan sinesten dugu, begitarte on egiozute zure seme-alaben deieri. Behin eta berriz erakutz-aguzu zure amultsutasuna. JKgJb.

E.g.o. – Zurekin baketzen gaituzu, Jainko gure Jauna, bihotz onez onar-zkitzu gure eskaintzak. Bakoitzaren oparia izan dadila zure goresteko eta denen salbamenaren ardiesteko. JKgJb.

Kom. – « ... Jainkoa benedikatz hartzen dugun esker onezko kopak ez ote gaitu Kristorekin bat egiten haren odolean ?... »

A.o. – Jainkoak bere mahainean hartu gaitu... Esker onez otoitz egin diezogun...

Jauna, komunione hunen graziak osoki har gaitzala : gorputz eta arima. Gu baitan, haren indarra eta ez gure sendimendua nagusi izan dadin. Elgar maitatuz, zure mirarien lekuko izanen gira. JKgJb.

25. IGANDEA C

Has. – Eguneroko errealitateak, eguneroko hautuak beti hor diraute. Jainkoa ala sosa. Jainkoa ala ohoreak. Ez da mutilik bi nagusi zerbitza ditzazkeenik. Guk badiku nor dugun nagusia. Hura baita egiazko biziaren iturri, esklabotasun guzietarik libratzen gaituena...

- Jesus Jauna, zure xedea da gizon guziak salbatuak izan dituen. U.J.

- Jesu Kristo, Jainkoaren eta gizonen arartekaria. K.U.

- Jesus Jauna, betiereko egia, bidea eta bizia zirena. U.J.

Ot. – Itzul gaiten egiaren Jainkoari buruz...

Jainko zuzen eta ona, zure legea da maita zaitzagun eta elgar maita dezagun, egizu atxik ditzagun zure manamenduak eta hel gaitezen betiereko bizitzarat. Galde egiten dautzugu Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

1. Ir. – Zuzengabekeria eta ahulen zapalketa betikoak izan dira. Profetak altxatu dira horien kontra.

2. Ir. – Jondoni Paulok otoitza gomendatzen dio Timoteori. Jainkoak entzuten baitu bihotzetik datorren otoitza.

Berriona. – Konfiantzaz hartu nahi banaute nik ere konfiantzaz hartu behar ditut aldeko lagunak.

F.o. – Egin dezagun otoitz Paulok Timoteori gomendatu maneran ...

– Mundu huntara etorri zira pobre. Behardunen eta gose direnen argi eta ogi izan zaitezene.

– Mundu huntako bekatorosen barkatzeko etorri zira. Zuzengabeki sofritzen dutenen argi eta sostengu izan zaitezene. E.d.O

– Hil eta aintzan piztu zira, zure Elizari bizi emaiteko. Eliz-buruentzat izan zaitezene argi eta bide, E.d.o.

– Kurutze gainean sofritu duzu. Eri eta hil zorian direnentzat, argi eta esperantza izan zaitezene, E.d.o.

* Jauna, onar-zazu zure haurren otoitza, zure erresuma gutartean handi dadin eta gure haurrideak Jesus gure Jaunaren baitan salbatuak izan ditezen, zu, zure Seme Jesu Krixtoekin eta Izpiritu Sainduarekin errege bizi baitzira menderen mendetan.

E.g.o. – Emaitza xume hauk eskaintzen daukitzugu, Jauna, zure maitasunaren dohain direnak. Gure bihotzean hartu dugu zuk eman hitza. Harreman hunek gure sinestea indar dezala eta izan dadila betiereko biziaren hazkurri. JKgJb.

Kom. – « ...Ni naiz artzain ona. Neure ardiak ezagutzen ditut, eta neure ardiek ezagutzen naute... »

A.o. – Jauna, zure laguntzak sustenga ditzala zure sakramenduaz asebeta dituzunak. Misterio hunen bitartez eskura ditzaten betirako salbamenduaren fruituak. JKgJb.

26. IGANDEA C.

Has. – Legea eta profetak gidari zituzten lehenago Orain, gure bidea aurkitzeko gehiago badugu : « Jesus Kristoren Berri Ona.», ebanjelioa. Jesusek dei eginik, ez gaitezen epel egon, ezazol. Gure bihotza idek dezagun Aita, Seme eta Izpiritu Sainduaren maitasunari.

- Jesus Jauna, Aitak ttipieri igorria haren Maitasunaren berri ukan dezaten. U.J.

- Jesu Kristo, mundurat etorria hertsatuen eta zapalduen libratzeko. K.U.

- Jesus Jauna, guri bidea erakusterat etorria eta Aitaren aintzan zerurat altxatua,

Ot. – Jauna, pobreen Aita, sofrikario ttikienak ez zaitu hotz uzten, gure bihotz ixiliko minak ezagutzen dituzu. Emaguzu behardun baten bihotza, zure ganat erakarria izan gaitezen, gure miseriak ez dezan gaina har bainan zure loriarat altxatu gaitzazun, JKgJb.

1. Ir. – Amos, profetaren hitzak errealistak dira. Ez dute gaurkotasuna galdu.

2. Ir. – Sinesteak ez du pausarik. Ebanjelioari jarraitzeko, behin eta berriz gure jaiduren kontrako guduka eraman behar dugu,.

Berriona. – Ontasunen metatzearen gaitza da : leize bat idekitzen duela jendeen artean.

F.o. – Nola jaunak pobreak entzuten dituen. Haien deia helaraz diezogun.

1. – Jesu Kristoren dizipuluek beren bihotza idek diezoten arrotza, kanpotarra edo bestelakoa denari. E.d.o.

2. – Zaharrak, haurrak eta ezinduak biktima errexak dira. Girstino zintzoak altxa ditezen haien alde. E.d. o.

3. – Zuzengabe preso altxatuek, baztertuek, justizia doi bat eskatzen dute. Bihozdun girixtinoak haien alde ager ditezen. E.d.o.

4. – Popolu osoak urratuak, bakearen egarriz daude. Hango edo hemengo, zoko guzietako jendearen baitan bakeak herra itzal dezan. E.d.o.

* Urrikalmenduaren Aita, atxik gaitzazu gogoz eta obraz beharduneri hurbil. Gidazkitzu gure bihotzak denek elgarrekin esperantzazko eta bakezko bideak aurki ditzagun.JK...

E.g.o. Miserikordiaren Jainkoa, onar-zkitzu gure eskaintzak, idek ditzaten zure benedizione nasaiaren iturriak, JKgJb.

Kom. – “Zoriontsu Jaunaren mahainerat deituak... Aberats zen hura pobre bilakatu da. Haren pobrezian aurki ginezan aberastasuna.”

A.o. – Jainko gure Jauna, profetak igorri dauzkiguzu zure amodioari itzul gaitezen. Jesusek kurutze gainean eman dauku bere bizia. Idek-aguzu bihotza laguntza eske datorreneri. Zure lekuko leial izanik, zeruko aintzan sartzeko gai izan gaitezen, zure Seme Jesu Kristo eta Izpiritu Sainduarekin errege bizi baitzira menderen mendetan.

27. IGANDEA C

Has. – Igandetan biltzen giralarik Jaunaren izena goersten dugu eta giristinoen arteko batasuna finkatzen. Sinesteak gaitu mugitzen. Sinestea, ez mekanika bat bezala, erabiliz ahultzen, baina bai indartzen. Sinestea akulatzeke eta arrapizteke gira hemen bilduak. Egun gure egiten dugu apostoluen oihua : « Jauna ! Emenda zazu fedea gure baitan. » Jaunari itzul ditzagun gure begiak, haren esku utz ditzagun gure beldurrak eta ahuleziak eta dudak

- Jesus Jauna, zu, Jaunaren leialtasunaren harkaitz sendoa. U.J.
- Jesu Kristo, hitzari leial egonez, guretzat bizia eman duzuna.K.U.
- Jesus Jauna, Jaunaren eta gizonen zerbitzari, zerurat altxatua. U.J.

Ot. – Gure Jaun onari dei egin diezogun (...)

Betiereko Jaun guziz-ahalduna, zure maitasun agortezinean, zurekin lan egitera deitzen gaituzu. Zuri otoitz egiten dautzutenak neurritz gainezka ordaintzen dituzu. Emaguzu zure barkamendua eta Izpiritu Sainduaren indarra, zure zerbitzuan leial iraun dezagun.JJKgJb.

1. Ir. - Hersturen erditik profetek ere Jainkoari dei egiten zioten. Eta Jainkoak erantzuten.

2. Ir. - Paulok, presondegitik, Timoteo, bere laguntzaileari karra berpizten dio.

Berriona. - Fede ahulenaren otoitzarekin mirariak ardiets dezazke gure Jainkoak.

F.o. – Jaunak eman daukun sinesteak bulzaturik, aurkez dezazkogun gure eskariak :

1. – Piztu zira, Jauna, betiereko aintzan sartzeko. Elizarentzat, oraiko aldakuntzeri aihur edo uzkur daudenentzat, Jauna izan zaite argi eta su.

2. – Gure mundura etorri zira, pobreen artean pobre. Janariz, zuzentasunez, duintasunez gose direntzat, Jauna, izan zaite argi eta ogi.

3. – Gutartekoekin egon zira, bekatorosekin oraino gehiago. Baztertuentzat, presoentzat, esklaboentzat. Izan zaite, Jauna, argi eta esperantza.

4. – Kurutze gainean hil zira. Erientzat, hil zorian direnentzat. Jauna, izan zaite argi eta bihotz....

Ot.*Aita guziz ona, ezarrazu gure baitan zure Izpirituaren indarra, otoitz hau gutarteko ahulenen probetxu izan dadin. Zu beti ari baitzira mundu huntan lanean eta ez baitituzu sekulan zure haurrak ahanzten. JKgJb.

E.g.o. Begitarte on egiozute eskaintza haueri. Zuk gaituzu Misterio Saindu hunen baitan biltzen. Bakotxak egin eskaintzak salba gaitzala eta zure bihotz ona gorets dezala.JkgJb.

Kom. – « ...Ogi bat bakarria baita, denak gorputz bat bakarria gira, guziek ogi bakarrean parte hartzen dugulakotz. »

A.o. – Egin dezagun oraino otoitz...

Esker-onezko apairu huntan, Jainko guziz saindua, egizu aurki dezagun indar eta bozkario. Orroitz giren guzia zure ganik daukagula. Gure haurrideak zure izenean zerbitzatzuz zure esker ona kantatuko dugu, zure Seme Jesu Kristo eta Izpiritu Sainduarekin, orain eta menderen mendetan.

28. IGANDEA C

Has. – Naaman Siriarrak eta Samariar hamar lepradunak sendatuak eta zutik emanak izan ziren, hots bizi-berrituak. Hauek dira Jesusen piztearen beste ezaugarri batzu, igandero ospatzen dugun Jesu Kristo Piztuarenak. Zertako gaude hain herabe gure bihotzak aldatzeko ? Hain uzkur eskerren bihurtzeko ? Utz ditzagun jauntzi zaharrak bazterrean eta soinean eman bataioko jauntzi berriak ? Hemen gaude bihotz berritu beharrez :

- Jesus Jauna, Aitaren ospean bizi zirena. Jesus, Irakasle, urrikal zakizkigu.
- Jesus Jauna, Aitak igorria salbatuak izan gaitzen. Jesus, Irakasle, urrikal z...
- Jesu Kristo, hiletarik piztua, denak biziberri gaitzen. Jesus, Irakasle, urrikal z...

Ot. – Biziaren nagusi eta gizon guzien Aita...

Zure graziak aintzina hartzen dauku eta beti gurekin doa, gaitz guzietarik libra gitzazu. Gure bizia esker onezko otoitz bilkaka dadin, mundu guziaren salbamenerako ; zurekin errege bizi den Jesu Kristo gure Jainko Jaunaren eta Izpiritu Sainduaren bitartez.

1. Ir. – Esker oneko Pagano baten etsenplua, horra salbatzaileari zor diogun ustegabeko ikustatea.

2. Ir. – Gogoan datxikagu Jesusen leialtasuna...

Berriona. – Esker-onezko bihotza, mundu guziari idekitzen dugun atea...

F.o. – Lepradunen otoitzari Jesusek ihardetsi zion, helaraz dezazkogun gure xedeak.

1. – Elizarentzat, bere maitasuna ager dezan gure garaiko gizoneri, mota guzietako lepredun guzieri. E. d .o.
2. – Erirentzat, eritasun kutsagarriek bazterturik atxikitzen dituztenentzat eta kuraiarekin haien artatzen saiatzen direnentzat. E.d.o.
3. – Oraiko Naaman pagano guzientzat. Salbamenduaren beha daudenentzat. Jainkoak girixtinoen artetik profeta berriak susta ditzan. E.d.o.
4. – Guhaurentzat, ikas dezagun Jaunari erkerdun izaiten. Jaunaren hitzak libra gaitzan eta ez beldurrez loturik atxik. E.d.o.

* Egin dezagun otoitz gizon guzien Aitari. Entzun-zkitzu amultsuki zure haurren otoitzak. Emaguzu gure aldeko lagunak zure begiekin ikus ditzagun. Jesusekin hilik harekin pitz gaitzen, zuri behin eta berriz eskerren bihurtzeko menderen mendetan

E.g.o. – Eskaintza hauekin, sinesdunen otoitzak helarazten dauzkitzugu. Maitasunez ospatzen dugun liturgia hunek Jaunaren zeruko loriarat helaraz gaitzala. JKgJb.

Kom. – (Sal 33,11) « Aberatsek ere badakite zer den beharra eta gosea. Jaunarengarat jotzen duteneri ez zaiote deus eskas. »

A.o. – Jauna, gure bihotz zikinduak eta bizi hautsiak, zuk bakarrik berri ditzazkezu. Gutarik bakoitza zure maitasunean zutik emazu. Eukariztia huntan bizi izan dugun ontasun balios hau dezagun gurekin eraman, bizi guzian eta zeruan, betiko eskerdun izan gaitzen, menderen mendetan.

29. IGANDEA C

Has. – Otoitz gehienetan guri doazkigun gauzak galdatzen ditugu. Iduri du erantzunik ez dugula ardiesten. Bainan pazientziarekin, iraupenarekin entzun behar dugu Jauna. Haren bideak ez baitira gureak. Egun, Jaunaren hitzak berriz ere deitzen gaitu haren alde itzultzerat. Jadanik gure beha dago.

- Jesus Jauna, Aitak gure salbatzerat igorria.U.J.
- Jesu Kristo, zure bizia otoitz egin duzuna eta guretzat hila. K.U.
- Jesus Jauna, osperat igana, zeruko bideak idekitzeko. U.J.

Ot. – Iraupenekin egin diezogun otoitz gure Jainko Jaunari.

Jainko leiala, nekatuak eta etsituak gaudelarik, zato gure indarren berritzera. Sendo egin gaitzazu fedean, karitatean eta esperantzan ; behin eta berriz galdatzen dautzugu zure seme maitearen izenean, haren baitan beti entzuten gaituzulako. Harekin Izpiritu Saindua baitan goersten zaitugu gizaldi eta gizaldietan.

1. Ir. – Zer den otoitzaren beharra ekintza handienetan, ttipieneri bezala ! ...

2. Ir. – Egiatzko zuhurtzia Jaunaren hitzetan da, dio Paulok Timoteori.

Berriona. – Iraupena otoitzean, horra gure sinestearen ezaugarria. .

F.o. – Badakigu zein bihotzbera den gure Jauna haren haurren alde.Hain aspalditik gure beha dagola otoitz egin diezogun ...

1. – Misionestentzat, apez, serora, laiko, munduko lau haizeetara joanak, urruneko haurrideen ardurarekin, Jaunaren hitzak bultzaturik. E.d.o.
2. – Elizarentzat, bere seme alabek, besoak apaldu gabe, gizonen hunkitzeko bide egokiak aurki ditzaten.E.d.o.
3. – Gazteeri sinestea erakasten diotenentzat, behar den pazientzia, argia eta moldeak aurki ditzaten. E.d.o.
4. – Otoitzik egiten ez dutenentzat eta otoitzean sinesten ez dutenentzat, haien etsipena gure eginik, otoitz bilaka dadin.E.d.o.

*Jainko gure Aita, guk galdatu baino lehen badakizu zein diren gure beharrak. Entzun gaitzazu, zure atean jotzen dautzugun haurrideak. Egizu onar ditzagun zuk eman ditzazkezun guziak. Zure Izpirituak sostenga ditzala ebanjelioa zabaltzen dutenak. JKgJb.

E.g.o. – Jauna, egizu zure aldarean zerbitza zaitzagun bihotzez eta egiatzki. Zure graziak garbi egin gaitzala hemen ospatzen dugun misterio hunen bitartez. J.Kristo gure Jaunarekin eta Izpiritu Sainduarekin errege bizi baitzira gizaldi eta gizaldietan.

Kom. – « Gizonaren Semea ez da etorri zerbitzatuia izaiteko, bainan zerbitzatzera bai eta bere bizia guzientzat emaitera... »

A.o. – Jainko zuzen eta saindua, dei egiten dautzueteneri ezin zaitezke elkor egon. Atxik gaitzazu batasun berean finko, fedean azkar, esperantzan iraunkor eta zure hitzari leial. Zure Seme Jesu Kristo gure Jauna etorriko den eguna arte, gizaldi eta gizaldietan.

30. Igandea C

Has. – Jaunak urrikalmenduz eta bihotz onez begiratzen gaitu. Nahiz jadanik haren bihotzean gauden, gure etxerat etortzeko desira dauka. Egun, nolako ongi etorria eginen ote diogu ? Handi ala ttipi, idek diezogun gure bihotza, giren bezala begira gaitzan. Jaunak ez du nehor apaltzen, bakarrik apalak altxatzen eta urrikaltzen direnei barkatzen. Publikanoaren otoitza gure egin dezagun : « Oi Jainkoa ! Naizen bekatariatz, urrikal zaite ! »

- Jesus Jauna, mundurat etorria, galdua zenaren salbatzeko. U.J.

- Jesu Kristo, hiletarik piztua, gu bektorosen baitan zure egoitza egiteko. K.U.

- Jesus Jauna, osperat igana, mundu guzia zureganatzeko. U.J.

Ot. – Jaunaren sema alaba guziak otoitz berean bat egin gaitezen...

Betiereko Jaun guziz-ahalduna, deitzen zaituztenak entzuten dituzu.

Benedikatua zu, galdua zenaren bila etorri zirena. Emaguzu pobre baten bihotza, zure maitatzeko eta zure barkamenaren miresteko gai izan gaitezen.

Izpiritu Sainduak haurrideen ganat eraman gaitzala zure maitasuna beti goresteko gizaldi eta gizaldietan.

Ir. 1. – Jaunaren begia ez da kanpoko itxuran gelditzen, bihotz-bihotzera doa.

Ir. 2. – Paulok, bere martitirioaren bezperan, esperantza eta esker-ona Jauna baitan ezarria du...

Berriona – Badakigu, Jaunak apaltasunez otoitz egiten diotenak entzuten dituela...

F.o. – Gure otoitza, publikanoarena iduri, Jaunari hel dakiola (...)

– Jaunak maite du apalaren eta zapladuaren otoitza. Gure inguruko behardun mota guzietakoentzat, miseria ixilpean bizi dutenentzat. E.d.o.

– Haurren gisa, konfiantza osoz, otoitz egiten dutenentzat. Beldurrean, arriskuan eta familia urratuetan bizi diren haurrentzat. E.d.o.

– Hil-hurbilen behakoan dago Jauna. Bizia azkenetan direnentzat eta haien familientzat, adin handiko ezindu guzientzat. E.d.o.

– Elizaren baitan dago Kristo. Elizaren zerbitzariarentzat, har dezaten su eta kemen ardi galduen bila joateko eta Eliza zabal idelkitzeko. E.d.o.

* Jauna, indar guzia zure ganik daukagu. Zure maitasunaren bertutez itxuralda-zkitzu gure bihotzak, denak otoitz eginak izan gaitezen, zure mirariak eta loria kantatzeko. JKgJb.

E.g.o. – Begira-zozute zure aldarera ekarri ditugun eskaintzeri. Jainko Jauna, egizu ospakizun hau, lehenik eta behin, zure aintza goresteko izan dadin. JKgJb.

A.o. – Apairu hunen apaltasunean, egin dezagun otoitz (...)

Jainko gure Jauna, gure bihotzeko atean jo nahiz zabilta. Nor gira bada, Jainkoa bere lorian gure baitan hartzeko ? Jesusek guretzat bizia emanik adierazi dauku Aitaren maitasun mugagabea. Bihotz xume batekin miresten dugu Jaunaren grazia eta esker onez kantatzen haren betiereko ospea, gizaldi eta gizaldietan.

OMIA SAINDU

Has. – Zoriontsu geroa fidantziarekin begiratzen duen gizasemea. Gure denbora gogor eta dudakor hauetan, Eliza, Jesusen ondotik, oldartzen da errepikatzen : zoriona badela, zoriona nun den, zoriona Nor den. Egun ospatzen ditugu saindu guziak. Jainkoa bilatu, aurkitu eta zerbitzatu dutenak. Jaunaren bozkarioak gaitu denak betetzen, harek gaituelako biltzen meza huntan Sainduekin eta Eliza guziarekin.

- Jesus Jauna, dohatsu zu, aberats zinelarik pobre egin baitzira. U.J.

- Jesu Kristo, dohatsu zu, bihotzez ezti eta umil zirena, zure uztarria goxoa baita. KU

- Jesus Jauna, dohatsu zu, bake egilea, bekatorosak Jainkoaren haur egiten baitituzu.

Ot. – Jaun urrikalkorra, bestaburu berean ospatzen ditugu zure ondora deitu dituzun saindu guziak. Saldo handian gure ararteko ditugularik, erantzun-zozu gure deiari : Emazkiguzu nasaiki Jesu Kristo zure Semearen graziak, zure eta Izpiritu Sainduaren batasunean errege bizi baizira orain eta gizaldi guzietan.

1. Ir. – Apokalipsian Jondoni Joanik ikusi du nehork ezin kondatuzko sainduen ostea.

2. Ir. – Bataioaz geroz Jainkoaren seme-alabak gira, beti hala izanen hil ondoan ere.

Berriona – Jainkoak zoriontsu nahi gaitu eta egiazko zoriona ardiesteko bidea eskaintzen

F.o. - Gure aitzinetik joan direnekin, munduko haurride guziekin, otoitz berean junta gaitzen...

1. Bataiatu guziak, denen zerbitzari bilaka gaitzen: begi-bistan izan dadin Jainkoaren maitasuna eta Elizaren batasuna. E.d.o.

2. Gizonen zuzengabekeriak sofritzen duten guzientzat, fedearen gatik sofritzen dutenentzat: ukan dezaten jadanik mundu huntan Jaunak hitzeman saria. E.d.o.

3. Bake egileak jalgi ditezen gutartetik, mundu hobe baten esperantzak gu baitan har dezan indar. E.d.o.

4. Eukaristia huntan bilduak girenentzat, gure etxekoentzat, eta Jaunaren ganat joanak direnentzat : Jaunak betiereko zorionean denak har gaitzan. E.d.o.

* Jauna, egizu, gu ere, behartsuekin, eztiakin, bihotz-garbiekin, bake egileekin, justiziaz egarri direnekin kondatuak izan gaitzen. Benedikatua izan zaite, beti urrunago deitzen gaituzulako eta bihotz-oneko guziak zure erreinuan hartuko gaituzulako. Maria eta saindu guziekin, zure aintzan hartuko gaituzu mender. mendet.

E.g.o. – Jainko gure Jauna, zu ganat igan-arazazu gure goresmena. Junta dadila Saindu guzietan, haien ohoretan zaitugulako ospatzen. Zure Semearekin eta Izpiritu sainduarekin batean menderen mendetan

A.o. – Benedikatzen zaitugu maitasun ziren Jainkoa, zure Semea eman daukuzu eta hark prestatzen dauku zorionezko geroa. Indar-zazu gure baitan zu buruz-buru ikuzteko lehia. Otoizten zaitugu Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, saindu guzien batasunean, zuri aintza menderen mendetan.

31. IGANDEA C

Has. – Nor nahi izan gaitezen, handi ala ttipi, Jaunak gure biziko bideetan kurutzatzen gaituelarik, grazia handi baten dohaina egiten dauku. Jainkoak hunkitzen duena itxuraldatzen du : lehertua bozkarioz zutik emaiten, bekatorosa barkatzen, ohore gose edo diru gose dena libratzen. Presta ditzagun gure bihotzak, gaur ere, Jainkoa gure etxeetara etorri nahiz baitabila.

- Jesus Jauna, mundurat etorria galdua zenaren salbatzeko. U.J.

- Jesu Kristo, hiletarik piztua, guri bizia nasaiki emaiteko. K.U.

- Jesus Jauna, zeruetako osperat igana, zure bozkarioan sar-arazteko. U.J.

Ot. - Benedikatua izan zaite, Jainko gure Aita, zure herriari ekartzen dizkiozun bozkario eta salbamenduarentzat. Benedikatua zu, gure bila eta galdua zenaren salbatzera etorri den zure Semearentzat. Haren gutartetik iragaiteak itxuralda ditzala gure biziak. Zure Izpirituak gure haurrideeri buruz idek gaitzala, maitasun iraunkor batean, gizaldiek gorets zaitzaten menderen mendetan.

1. Ir. – Ohar gaiten zein den handia Jainkoaren barkamendua.

2. Ir. – Jaunaren berriz etortzearen gaitik zertarako beldur izan?

Berriona – Egun batez Jesusek Zakeo kurutzatu zuen... Hortarik zer bizi ez zen jalgi !

F.o. – Gure Jainkoa guziz ona da. Horrengatik behin eta berriz dei egiten diogu.

1. Zakeo! Jauts zaite lazter! Gaur zure etxean egon behar dut... Apezpiku eta apezentzat, Jaunaren bihotzarekin barkamendua emaiten dutelako. E.d.o.

2. Eta Zakeok Jesus ikusi nahi ... Egiaren bila, Jainkoaren bila dabilzanentzat. E.d.o.

3. Eta Zakeok behartsueri emaiten diote... Podere eta ondasundunentzat, nekez partikatzen dutenentzat. E.d.o.

4. Jesusek goiti begiratu zion Zakeori eta deitu... Jainkoak gaur egun dei egiten diotenentzat eta hemen biltzeko Jaunaren deia entzun dugunentzat. E.d.o.

* Gizon guzien Jainko Aita, zure Semea igorri duzu galduak zirenen bila.

Emaguzu zure maitasunaren indarra : denek zure bozkarioan izan dezagun parte. Zu, zure Semearekin eta Izpiritu Sainduarekin batasunean errege bizi zirena gizaldi eta gizaldi guzietan.

E.g.o. – Huna, Jainko urrikalkorra, gure eukariaziaren ogia eta arnoa :

Giren guzia, dugun guzia zure ganik daukagu eta zurea duzu.

Eskaintza hauk bilaka ditela zure salbamenduaren betiereko dohain,

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, orain eta menderen mendetan.

A.o. – Gure salbatzaile ziren Jauna, Zakeoren zorion berarekin, ongi etorria egiten dautzugu. Egizu zure sakramenduen indarraren bertutez guk ere, egun guzietan obra ditzagun zuzentasuna eta partikatzea. Zure Seme, Jesu Kristo gure Jaunaren eta Izpiritu Sainduaren bitartez, menderen mendetan.

32. Igandea C

Has. – Gurea bizidunen Jainkoa da, ez hilen Jainkoa. Jainkoaren Erreinura doan populuaren partaide gira. Haurride fededunak! Jesu Kristorekin bat egin gaitezen. Hark, behin betiko herioa garaitu baitu. Kurutze gainean bere bizia eman ondoan, piztuz gero, gu ere bizi biziberritzen gaitu. Betiereko bizi horren haiduru gaudela, ospa dezagun, meza huntan, Jauna, hiletarik piztuetan lehena.

- Jesus Jauna, denak zu baitan sortuak dituzu, zero lurak zu baitan kantuz ari dira.

- Jesu Kristo, herioa garaitu duzu, bizi berrira jalgi zira. K.U.

- Jesus Jauna, Izpiritu Sainduaren bidez berpizten gaituzu. U.J.

Ot. – Jainko Jauna, gure Esperantza, zuk gaituzu biltzen. Zure hitzak dauku erraiten nor giren. Idek gure begiak eta gogoak eguneroko kezka eta griña guzietarik urrunago. Egizu, Jesus izan dadin gure bizi iturri, haren nahia egin dezagun orain eta mend. men.

1. Ir. - Esperantzak sinestearekin indar mugagabea eman diezaguke: horra hor martirak lekuko!

2. Ir. – Paulok esperantza atxikitza deitzen gaitu, Jaunari leial egonez.

Berriona. - Hil ondoan bizia zer izanen den, huna Jesusen erantzuna.

F.o. – Otoitz dezagun bizidunen Jainkoa. Gu denek parte izan dezagun haren piztean;

1. Zu, bizidunen Jainkoa, entzun-zazu gure otoitza zure Elizarentzat: arduradunak sineste sendokoak izan ditezen, eta esperantzaz zoriontsu.

2. Zu, bizidunen Jainkoa, entzun gure otoitza, torturatuak, humiliatuak eta baztertuak direnentzat: Girixtinoek ez dezagun onar den-mendreneko giza eskubideen urraketarik.

3. Zu, bizidunen Jainkoa, entzun-zazu gure otoitza sinesgabeentzat : zuk duzu emaiten sinestea. Bainan nork diote zure piztearen bozkarioa, ekarriko guk ez badugu egiten ?

4. Zu, bizidunen Jainkoa, entzun-zazu gure otoitza biziaren gustua galdu dutenentzat:

Zu aurkitzean, egiazko girixtinoak kurutzatzean, aurki dezaten esperantza berri bat.

*Jauna, biziaren iturria, egizu ausart izan gaitezen Jesu Kristoren urratsetan.

Jainkoaren haur girenak begira gaitzazu zure maitasunean. Zu, mundu guziak lauda zaitzan orain eta menderen mendetan.

E.g.o. – Begitarte on egiozute gure eskaintzeri eta gure bizi guziari, zure Semearen Bazko hau ospatuz zure misterioaren bihotzean sar gaitezen. Aintza zuri, bakezko Jainko urrikalmendutsua orain eta menderen mendetan

A.o. – Jainko amultsua, gure bizia izan dadila zurearen iduri. Zure hazkurriak indarturik, gure hitzek eta ekintzek Jesu Kristok eman esperantza arrapitz dezatela: Elizak, Izpiritu Sainduaren laguntzarekin, heda dezan betiereko bizitzearen berriona, orain eta menderen mendetan.

33. IGANDEA C

Has. – Oraino zenbait denbora eta Jauna berriz etorriko da... Munduak sasi profeta frango ezagutu du. Munduaren azkenak gutarik bat baino gehiago izitzen du. Bainan gure geriza eta defentsa Jauna dugu. Nori joanen gatzazkio, Jaunak gaitu bizitzen. Haren zerbitzua izan dadila gure zoriona eta esperantza. Eman diezagula fedean eta bakean irauteko grazia.

- Jesus Jauna, haragi egina bakezko mundu zuzen bat sortzeko. U.J.

- Jesu Kristo, hiletarik piztua, esperantzaren argi berria sortzeko. K.U.

- Jesus Jauna, zerurat altxatua, mundu berri guzia han biltzeko. U.J.

Ot.- Jainko Jauna, denboraren eta historiaren jaun eta jabea, Zuk deramazu gure mundu hau bere helbururat. Atxik gaitzazu zure aintza den egun horren haiduru, zu, errege bizi zirena, zure Seme Jesu Kristorekin eta Izpiritu Sainduarekin menderen mendetan ...

1. Ir. – “Iguzkia bezala agertuko da Jaunaren justizia”. Ez dugu beraz etsitzerik!

2. Ir. - Jaunaren egunaren beha alfer egoiterik ez dugu. Munduaren eraikitzea guri dagokigu.

Berriona – Jauna leial dago, hersturetan hari jarraitzen zaionari.

F.o. – Otoitzeri jarraikirik, fida gaiten ekaitzen erdian « sendo dagon harrokari »

1. Eliza-arduradunek har dezaten hats mundu bortitz hunen erditik
Jaunaren maitasunezko hitzak ozenki adierazteko. E.d.o.

2. Beren girixtino-fedea gatik sofritzen dutenentzat.

Izpirituak beren baitan indarra ixur dezan. E.d.o.

3. Sekta eta sasi sinesteetan galtzen direnentzat :

Jaunaren hitzetan berriz aurki dezaten konfiantza eta leialtasuna. E.d.o.

4. Hemen bilduak girenentzat : iraun dezagun gure sinestean.

Gure biziak ager dezan Jaunaren Erreinuan sinesten dugula. E.d.o.

*Jainko ahalguziduna, entzun-zazu zure haurren deia. Lagun gaitzazu zure mundu berriaren eraikitzen. Haz ditela gure baitan Jesu Kristoren esperantza eta amodioa; haren betiereko zorionaren beha gaudela menderen mendetan

E.g.o. – Huna ogi eta arno hauk: gure eguneroko lanaren adierazgarri. Gure bihotzak Jaunaren hitzari idekitzen daukitzugu. Haren maitasunak urrunago eraman gaitzala : Jesu Kristo zure Semearen Bazkoan parte hartzera, Izpiritu Sainduaren batasunean errege bizi baitzira menderen mendetan.

A.o. - Giza seme-alaba guzien Aita, zure Semearen gorputz eta odola eman dauzkiguzu, hola prestatzen gaituzu zure Egunerako. Egizu Izpiritu Sainduak itxuralda gaitzan, zure aintzan berriz etorriko zirelarik, prest izan gaitzen, zu, bizidun guzien Jainko Jauna menderen mendetan.

JESU KRISTO ZERU LURREN ERREGE C

Has. – Haurrideak, Orroit gaiten Magoak errege baten adoraterat etorri zirela Betelemera. Hogoita hamahiru urte berantago, iraindua, trufatua, elorritz koronatu, erregea kurutze gainean itzaten zuten. Harekin kurutzefikatu lagunetarik batek Jesusen erregetza ezagutu zuen : maitasunaren erregetza, salbamenduaren erregetza, zerbitzariaren erregetza: gaizkiaren uztarritik libratzen gaituena .

- Jesus Jauna, errege humila, gure miseriak eta zorigaitzak jasan dituzuna. U.J.

- Jeus Kristo, maitasunaren boterea baizik ez duzuna. K.U.

- Jesus Jauna, betiereko bizira eramaiten gaituzuna. U.J.

Ot. – Jesus Jauna, zure graziari esker dugu Jesus kurutz-itzatua erregetzat hautatzen. Emaguzu guk ere zure maitasuna izan dezagun gure indar bakarra, eta aldeko laguneren zerbitzua gure hauditasun bakarra. Orduan, zure haurrek zure betiereko erreinuaren zorionean parte hartzen ahalko dugu, mend. mendetan.

1. Ir. – Jesus, David erregearen semea, populu berri baten errege-artzain.

2. Ir. – Paulok, Jesus, bizidun guzien buruari goresmen egiten dio.

Berriona – Elizak gomitatzen gaitu, Jesus errege, kurutzefikatu, begiratzera.

F.o. – “ Jesus orroit zaiten nitaz errege etorriko zirenean”.

Gaixtaginaren otoitz hau gure egiten dugu, behartsu guzien alde.

1. Elizarrentzat: botere goseak ez dezan har, ez dezan bortizkeri biderik hauta..E.d.o.

2. Kurutze dorpea ekarri behar dutenentzat, bidean egiazko kristauak aurki ditzaten.

3. Gure mundutar behartsuenentzat, sarraskituak eta urrun direlako ahantziak. E.d.o..

4. Biktima hobengabeentzat, doluan direnentzat : Jauna orroit dadin zein gaituen maite. E.d.o.

* Lur huntako gora-beheren erdian bizitzera deitu dituzun gure haurride guziekin, emaguzu egiazko kristau-gogoz eraiki dezagun Jainkoaren Erreina, eguneroko eginbideak kartsuki betez. Zuk zure haurrak maite dituzun Jainkoa, orain eta menderen mendetan.

E.g.o. - Jainko gure Aita, bareiatuak ziren bihiak bildu ditugu,

ogi eta arno hau zuri eskaintzeko. Zure Seme Jesu Kristok,

munduko bazter guzietarik bildu populuari, eman diezola, batasuna eta bakea.

Hura errege bizi baita zurekin eta Izpiritu Sainduarekin menderen mendetan.

A.o. – Betiereko ogia partekatu ondoan, gure loria Kristo zero-lurren Erregeren baitan dugu. Otoizten zaitugu, Jauna, egizu gutaz orroit dadin Errege jinen delarik.

Esperantza hortan leial atxik gaitzala. Zu gure aiataren eta Izpiritu Sainduaren batasunean dugu goersten haren erregetza menderen mendetan.